

LEIOAN, 2014KO UZTAILEAN

AMATASUNA ETA ATXIKIMENDUZKO HAZIERA EREDUAK

Diskurtsoak, sareak, eztabaidak eta
esperientziak Gipuzkoan

Egilea: Ainhoa Narbaiza Irizar

Tutorea: Marta Luxán Serrano



GRADU AMAIERAKO LANA

SOZIOLOGIAKO GRADUA 2013/2014 IKASTURTEA

LABURPENA

Ikerketa honek amatasuna eta atxikimenduzko hazieraren gaia Gipuzkoako testuinguruan kokatzen du. Amatasuna bizi eta ulertzeko era anitzak daudela ulertuz, 2014. urtean bereziki atxikimenduko ereduak zein irudikari eta esperientzia sortzen dituen ikusiko dugu.

Interneten gertatzen diren eztabaida ezberdinetatik abiatuz, ama ezberdinek erabakiak nola eta zeren arabera hartzen dituzten aztertuko dugu, hau da, diskurtso ezberdinek zein abiapuntu duten, emakumeen autonomiarengan zein eragin duten eta praktika ezberdinek diskurtsoetik zenbat daukaten analizatuko dugu.

Amatasunaren gaia, feminismoa ulertzeko eta bizitzeko bidegurutzean kokatzen da. Eta ikerketa txiki honek, bere neurri xumean, feminismoaren baitan gertatzen ari diren eztabaiden isla izan nahi du.

ABSTRACT

This research illustrates the present situation of the 'Maternity and attachment parenting' in the context of Gipuzkoa (Basque Country): understanding that there are diverse ways of living and Maternity, you will see the imaginary and the experiences that will be generates the 'attachment parenting' in 2014.

Starting analysing the different Internet discussions, we will examine how mothers take different decisions and depending on how. Also we will identify, were this discourses come from, which effects causes in women and how much they have the practices from the discourse.

The subject of motherhood is located at the intersection of the different ways of understanding feminism. And this small study, with its simple measures, reports different discussions that are happening inside the feminism.

AURKIBIDEA

1. Sarrera
 - 1.1. ikerketaren xedearen aurkezpena eta zehaztasuna 4-5
 - 1.2. Helburuak 6
 - 1.3. Lan-hipotesiak 6
 - 1.4. Gaiaren egoerari buruzko laburpena 7-16
 - 1.4.1. Fase-historiko ezberdinak 7-9
 - 1.4.2. Literatura zientifikoaren berrirakurketa, amatasuna ikerketa eremu gisa 10-11
 - 1.4.3. Feminismoa, amatasun-haurraren hazieraren arteko bidegurutzean 11-13
 - 1.4.4. Atxikimenduzko haziera ereduak 13-15
 - 1.4.4.1. Atxikimenduzko haziera ereduaren jatorria
2. Metodologia 17-22
 - 2.1. Ekarpen metodologikoak 16
 - 2.2. Diseinu kualitatiboa eta landa-lanaren garapena 16-19
 - 2.3. Ezagutza feminista sortzen, metodo, metodologia eta epistemologia feministaren hurbilketa bat 19-21
3. Garapena 22-40
 - 3.1. Amatasuna nola ulertzen den 22-24
 - 3.1.1. Amaren ardurak eta autonomia. Aitaren ardurak. 2-23
 - 3.1.2. Haurraren beharrak 23-24
 - 3.2. Eredu eta erreferente bila 25-30
 - 3.2.1. Hezkuntza sistema 26-27
 - 3.2.2. Sistema medikoa eta diskurtso medikoa 27
 - 3.2.3. Haurdunaldiaren fase ezberdinak 27-28
 - 3.2.4. Eredu zaharren erreprodukzioa 29-30
 - 3.3. Espektatibak eta desirak 30-33
 - 3.3.1. Amatasunaren idealizazioa 31-32
 - 3.3.2. Nolako ingurunea nahi dute haurrentzat? 32-33
 - 3.4. Denbora 33-36
 - 3.4.1. Denboraren kudeaketa 33-35
 - 3.4.1.1. Zaintza lanak eta etxeko lanak
 - 3.4.1.2. Enplegua
 - 3.4.2. Haurraren etapa ezberdinak 35-36
 - 3.4.2.1. Hurbiltasunetik autonomo izaterantz
 - 3.4.3. Norbere denbora 36
 - 3.5. Ezagutzak 37-41
 - 3.5.1. Harreman-sareak eta ikastaroak 37-38
 - 3.5.2. Erreferentziazko adituak 38-39
 - 3.5.3. Subjektu feministak. Eztabaidak eta elkarguneak 39-40
4. Ondorioak 41-43
5. Bibliografia 44-47

SARRERA

1.1. IKERKETAREN XEDEAREN AURKEZPENA ETA ZEHAZTASUNA

Amatasunaren gaineko interes soziala piztu eta eztabaidak areagotu dira azken urte hauetan. Geroz eta teknologizatuagoa bihurtzen ari den gizarte honetan, badirudi jatorrizko ezagutza eta bizi-ereduen gaineko ikuspegiak irekitzen ari direla. ‘Haziera naturala’, ‘amatasun/gurasotasun kontzientea’, ‘atxikimendua’ eta ‘amatasun errespetatua’ gure inguruan geroz eta gehiago entzuten ditugun kontzeptuak dira. Eta gure kasuan, haurrarekiko atxikimendua oinarri duten haziera ereduaren irakurketak dakarzkizu lerro hauetara.

Amatasunaren gainean aritzeak, genero eraikuntza eta publiko-pribatu tentsioen arazoaren gaineko hausnarketa egitea ahalbidetzen digu. Eta zehazki, feminismoaren baitan pizten ari diren eztabaida zein mugimendua jaso eta aztertze aukera. Batzuek korrante ekologista eta naturazaleetatik datozen zaintzaile eta etxeakoandreaken rol tradizionala indartzen duten esplotazio modu bezala ulertzen dute; beste batzuek, zainketa lanak emakume izatearen parte ere badirela aldarrikatzen duten bitartean. Zergatik aztertuko dudan amatasuna bakarrik eta ez gurasotasuna edo aitatasuna? Amatasunerako eta aitatasunerako dagoen exijentzia maila ez delako berdina, haziera intentsitate ezberdinean oinarritzen diren genero-eraikuntzaz ari baikara.

Orain arte, Euskal Herrian amatasunaren eta haziera ereduaren gaineko ikerketa gehienek amatasuna eta familia eredu ezberdinen gaineko irakurketa orokorrak jaso dituzte. Ez dute, beraz, niri bereziki interesatzen zaidan gertaera soziala jaso: sistema ekonomiko-sozialaren gaineko ikuspegi kritikoa eraiki nahi den testuinguruaren, nola amatasunaren eta haurren haziera ereduaren gaineko interes soziala handia den egun. Eta haurrak gizarte aldaketaren motore moduan ulertzen diren.

Zentzu horretan, atxikimenduzko haziera ereduaren gaineko ikerketa enpiriko honek komunitate zientifikoari zein gai honen inguruan interesa duen edonori galdera eta bide berriak eman diezaioke.

Bide horretan, atxikimenduzko haziera ereduak azaltzeaz gain, historikoki amatasunaren gaineko ideologiaren eraikuntza nolakoa izan den azaltzen saiatu naiz, literatura zientifikoaren berrirakurketa bat proposatuz. Bestalde, ezin genezakeen aipatu gabe utzi, metodologikoki zein amatasunari dagozkien ikerketen gainean feminismoak egin duen ekarpena. Eta ikerketa enpiriko honen bitartez, amatasunaren gaineko ulerkeren, hazierari dagozkion erreferentzia eta iturrien, amek eraikitzen dituzten espektatiba eta desiren, eta azkenik denboraren eta ezagutzen gaineko gogoeta egiteko gonbidapena luzatzen dugu.

Soziologia ikasketa ibilbide honi amaiera emanez, Gradu Amaierako Lan honetan, lortutako gaitasunetan trebatu eta ikasteari begirako helburu ezberdinak bete dira. Diziplina ezberdinetan aurkitu ditudan datu garrantzitsuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzen aritu naiz, erritmoa eta denbora nork bere mailara egokituz, betiere zuzendariaren laguntza eta gainbegiratze-lanarekin eta bizitzako beste esparru batzuetan garatzen saiatzen naizen perspektiba feminista kasu honetan eremu akademikora ekarriz.

Azkenik, emakume eta ama izatearen irudikari ezberdinen kontraste-lana testuinguru hurbilean kokatzean, Gipuzkoan nire kasuan, lana erraztearekin batera etorkizuneko zein iraganeko hainbat aspekturen gainean begirada kritikoa garatzeko parada eskaini dit. Eta bereziki, ama, emakume, militante eta lagun eredugarri eta perfektu irudiaren gaineko hausnarketa egiteko aukera ere bada.

1.2. HELBURUAK

- Helburu orokorra: Amatasun eredu *alternatibo* bat eraiki nahi den testuinguruan, Atxikimenduzko hazieraren ereduak aztertzea Gipuzkoan, 2014. urtean
- Helburu zehatzak:
 - Atxikimenduzko haziera ereduaren iturriak identifikatzea
 - Atxikimenduzko hazierak emakumeen autonomiari dakartzan ondorioak analizatzea
 - Elkarrizketatuen erabaki eta hautuetan diskurtsoak eta praktikak zer nolako indarra daukaten ulertzea.

1.3 LAN-HIPOTESIAK

- Guraso izan eta haurrak nola hazi erabakitzeko geroz eta informazio-baliabide gehiago daude, era berean gizarte-presio gehiago dago hainbat esparrutan jarrera eredugarriak izateko (elikadura, hezkuntza edota emozioen kudeaketa, besteak beste).
- Atxikimenduzko haziera ereduaren bitartez amatasunaren aldarrikapena egiten da.
- Norbere buruarekiko oso zorrotza den amatasun eta haziera eredia da.
- Sarean ematen diren eztabaidek eragina dute diskurtso eta praktika ezberdinetan.

1.4 GAIAREN EGOERARI BURUZKO LABURPENA

Ama izatea, emakume izatearen ondorio natural moduan ulertu izan da, eta honekin batera haurraren heziketari eta hazierari dagozkion ardura eta kezkak amatasunarekin lotu izan dira. Akademia mailan, haurren hazierari lotutako gaiak eremu biologiko eta psikologikoaren alor moduan identifikatu izan dira. Eta zentzu honetan, diziplina hauetan sortutako beharren arabera eraiki dira amatasun eredu ezberdinak, diziplina horiek esparru neutroak bailiran.

Mendebaldeko kulturean, amaren maitasunaren irudikariak egintza instintibo gisa nagusitzen dira, umetatik emakume orok ikasten du hori. Baina, amatasun instintua, gizartean eraikitako irudi bat da, eta bere izaera naturala aldakorra izan da pertsona, gizarte, espazio eta garaiaren arabera (Badinter, 1984).

Gizarte zientziei dagokienean, eremu publikoko fenomeno eta gertakariak izan dute lehentasuna. Eta beraz, amatasuna eta haurren haziera gai pribatua izanik, ez zaio garrantzirik eman orain gutxi arte. Soziologiari dagokionean ere, XX. mendeko azken hamarkadetararte amatasuna ikerketa esparru moduan ez da errekonozitua izan.

Hau honela, hurrengo atal honetan amatasunari dagozkion teoria eta korrante ezberdinak jorratuko ditut. Eta zehazki atxikimenduzko haziera aztertuko dugunez, eredu horri dagozkion literatura zientifikoaren berrikuspen kritiko bat egingo dut. Autore klasiko eta egungo autoreen lanketa eginez, amatasunaren gaineko diskurtso ezberdinen ibilbide sozio-historikoa egingo dugu, egungo testuinguruarekin amaituz.

1.4.1 Fase historiko ezberdinak

Emakumeen aurrerapausoan aurrean, testuinguruaren arabera protagonista, eduki edota argudio ezberdinak dituzten erreakzioak agertu izan dira historikoki. Beste era batera esanda, feminismoari eta emakumeen urtetako borroka eta ekarriekiko erresistentziak sortu dira gizarteko sektore politiko-ideologiko ezberdinetan (Esteban, 1999).

Familia moldatu egin da gizartearen gora-behera eta aldaketa ezberdinetara, eta moldaketa horiek zein testuingurutan eta nola egoki diren aztertzea joko dugu. Maiz erortzen gara garai ezberdinen arteko konparaketetan, eta kausalitate ekonomiko, sozial

eta historikoak kontuan hartu gabe, ezinezkoa da ulertzea garai bakoitzean egon daitekeen familia-aniztasuna eta familiaren forma ezberdinak.

Mendebaldean eraikitako amatasunaren ideologiari dagokionean, forma eta diskurtso ezberdinen azpian gorpuztu da, baita testuinguru ezberdinetan ere. Eta ideologia honen eraikuntza ikertzen ari garenean, garrantzitsua da aztertzea diskurtso edo mezu ezberdinak gizarteko zein sektoretatik datozen. Hau da, amatasunaren ideologia eta eredu ezberdinak gizarteko zein klase-sektoretan birsortzen diren aztertu beharra daukagu. Izan ere, garai ezberdinen azterketa eginez gero antzematen da emakumeen rol erreproduktibo eta familiarrari dagokionean, emakumea-etxeakoandre-ama eta gizona-langilea esparru publikoan binomioa ez dela beti horrela izaten. Historian zehar eredu honekiko erresistentziak sortu dira eta. Izan ere, emakumearen rol eta amatasunaren gaineko diskurtso askok jatorri burgesa badute ere, testuinguru bakoitzean forma ezberdina hartu duela aitortu beharra dago (Arbaiza, 2000).

Ama-maitasuna XVIII. mendean eraiki zen, haurren heziketa bermatuko zuen kontzeptu gisa. Eta logika horren baitan kokatzen dira egun pil-pilean dauden hainbat eztabaida, edoskitze naturalaren ingurukoa adibidez. Honekin batera, garai honetan haurtzaroaren eraikuntza eta birbalorazioa gertatu zen. Izaki preziatu eta etorkizunerako giltza bezala ulertuz, haurra erdigunea kokatu zen, hain juxtu (Ariès, 1987).

Orotara, hiru fase ezberdin eman ziren amatasunaren ideologiaren eraikuntzaren bidean, hiruretan ideia-jarraipen bat gertatzen delarik. Hiruretan berrindartzen baitira familiari, arlo publiko/domenstikoei eta gizonen eta emakumeen rolei buruko rolei buruzko ideia batzuk (Esteban, 1999). Lehen fasea, XIX. mendearen amaieran kokatzen da, Ingalaterrako garai biktorianoan, hain juxtu. Rol erreproduktibo, familiari eta sexualitateari buruzko diskurtsoaren sorrera garai honetan gertatu zen. Garai honetan, emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak azaltzeko etengabeko beharra zegoen, eta argudio filosofiko eta erlijiosoak argudio zientifikoekin ordezkatu ziren. Honela, gizaki ezberdinak klasifikatu eta estatus eta botere ezberdintasunak markatzeko proba zientifikoak edukitzeko (Eagle Russet, 1995).

“Have you any notion how many books are written about women in the course of one year? Have you any notion how many are written by men? Are you aware that you are, perhaps, the most discussed animal in the universe?” (Wolf, 1920: 26).

Bigarren fasea, bi mundu gerren artean kokatzen da. Bereziki Espainiar Estatuko testuingurua kontutan hartuz, emakumeek duintasun sozial eta politikoa eskuratzen

zihoazten neurrian, emakumeak babesteko eta kontrolatzeko nahia ere suspertu zen. Emakumeek, amak bereziki, babestu beharreko izakiak izan behar zuten, euren askatasunaren kontra. Honekin batera, feminidadea eta amatasunaren arteko lotura indartu zen, botere, duintasun eskubide eta betebeharren azalpen eta justifikazio izanik. Ondorioz, gauzatzen ziren aldaketa laboral-legal-sozial guztiak amatasunaren izenean defendatzen ziren (Aresti, 2001).

Aipatu bezala, Espainia izan zen Europa osoan emakume langilearen lege babesleak eduki ez zituen bakarra. Edo behintzat denbora batean izan ez zuen bakarra, hirurogei urte beranduago ezarri baitzen. Legedia honekin nolabait emakumeak lan-ordu murrizak zituzten eta gaueko enplegu-aldiak debekatua zituzten, baita industria arriskutsuetako lana ere. Egoera hobetu baino, emakumeen egoera okertu egiten zuen sozialki, menpeko eta ez-emantzipatu kontsideratzen baitzituzten emakumeak. Nolabait jarrera pribatuak erregulatzen zituen eta bide batez familien ohituretan ere eragin nahi zen, langile-familetan hain zuzen ere. Emakumea eta enpleguaren gaia estatu mailako gaia bihurtu zen. Izan ere, proiektu sozial liberalaren porrota izan zen emakume langilearen eredia (Arbaiza, 2000).

Horretarako, adituek gidatutako eta zientifikoki egituratutako ideologia garatu zen, amak diziplinu eta nazioaren beharretara egoki zitezen. Honen ondorioz, hainbat espaziotatik erretiratu behar izaten zuten, karga moral izugarria hobesten baitzitzaien eginkizunen bat betetzen ez bazuten (Esteban, 1999).

Gaur egungo testuinguruan, ideologia familiar eta domestikoaren defentsa, azken urteotan eztabaidaren erdian egon den abortuaren legearen erreformarekin argi antzematen da. 2013. urtean onartu zuten *Kontzebituaren Bizia eta Haurdunaren Eskubideak Babesteko Lege Organikoaren aurreproiektua*. Eta azken batean, emakumearen osasun sexual eta erreproduktiboaren gainean ematen ari diren lege aldaketa hauek emakumea eremu pribatura mugatzea eta familia eredu zehatz bat bultzatzea dute helburu.

Bide honetan, tresna eta mekanismo ezberdinak erabili izan dira familiaren instituzioa bera indartu eta horren aldarrikapena egiteko. Izan ere, egungo gizartean familia likido moduan ikusten da sarritan (Baumann, 2003). Baina ezin dugu ahaztu, aldaketa batzuk gertatzen diren arren, familia eredu nuklearraren diskurtsoa dela hegemonikoa gure gizartean. Deskribatu ditugun garaietan, familiari gizartearen noraezintasunaren errua

botatzen zitzaion (zaio), baina familiak instituzio moduan horrenbeste aldaketaren ostean iraun badu, izaera malgu eta moldagarria daukalako da.

1.4.2 Literatura zientifikoaren berrirakurketa, amatasuna ikerketa eremu gisa

Diziplina ezberdinetatik etorri diren diskurtsoen begirada kritiko bat garatzeko, amatasunaren gaineko literatura zientifikoaren berrikusketa egitea komenigarria litzateke. Horretarako, ikus dezagun lehenbizi, gai honek izan ditzakeen aurrekariak. Izan ere, akademia mailan diskurtso mediko zientifikoak eragin nabarmena izan du, emakumearen eta batez ere emakumearen sexualitateari eta esperientziei dagozkien gaietan. Eta gizartean garatzen diren diskurtso eta ikuskera askoren jatorria hor koka genezake.

Zientzia bera, objektibo eta neutraltzat hartu den arren, ideologia eta mundu ikuskera konkretu batekin bat egiten du beti. Eta hori zalantzan jartzen duten ikuspegiek ordena patriarkalaren apurketa bultza dezakete.

“Las críticas feministas que afirman que también la ciencia esta generizada parecen profundamente amenazadoras por el orden social.” (Harding, 1996:18).

Harding-ek azpimarratzen duen moduan, zientzia ororen inguruko ezagutzak guztiz ideologikoak izan dira, eta amatasunaren inguruko diskurtso ezberdinak sortzen aritu diren agenteek, modu batez edo beste batez, genero-sistema sexistak elikatu eta legitimatu dituzte. Agente horiek diziplina ezberdinetan kokatzen dira, baina batez ere, medikuntzaren, pedagogiaren eta “psi” zientzien eremuan kokatzen dira. Gizarte zientziei dagokienean, baita zuzenbidearen instituzioa, antropologia eta soziologiaren baitan ere. (Lagares, 2012:11).

Gure esparrura eramanda, soziologiaz ikasi eta irakurri dudan literatura zientifikoa aztertuz gero, eremu publikoan eraikitzen diren egintza eta diskurtsoek, hau da, eremu produktiboan gertatzen diren horiek izan dira garrantzitsuak orain arte. Eta eremu erreproduktiboaren bueltan kokatzen diren dinamika eta egituraketak bigarren maila batean kokatzen direla esan genezake. Soziologo klasikoen irakurketa eta testuingurua, beste diziplina batzuetan bezala, guztiz androzentrikoak izan diren eremuak dira. Familiaren gaineko irakurketa hauek, egitura patriarkaldun erro kultural eta erligiosoan daukate jatorria. Horren adibideko, Parsons-ek haurra helduekiko lotura baten baitan hazten dela aipatzen du, lotura hori rol sexualen arabera eraikia izango delarik:

Presumiblemente, existe una continuidad a partir de los orígenes subhumanos en un respecto crítico: centrar en la madre los primeros cuidados del niño. En este hecho, además de las incapacidades motivadas por el embarazo y el hecho de que solo recientemente se han generalizado los sustitutos de la lactancia natural, se encuentra la base de la diferenciación de los roles de los sexos (Parsons, 1999: 103).

Diskurtso guzti hauek objektibo gisa ulertu izan dira historikoki, batez ere diskurtso medikoa. Eta honekin batera, emakumearen xedea ama izatea zela irudikatu nahi izan da, bere hautu eta bide natural gisa. Eta elizaren ondare kultural-ideologikoan zein pentsamendu sekularizatu eta zientifikotik izan zezaketen jatorria. Emakumeak ama zergatik? Gomez Ocañak zioen moduan, lehenbizi mandatu naturalagatik, eta bigarrenik, gizonezkoekin adostutako ustezko lan-banaketa batean oinarritutako behar sozial bat zelako (Aresti, 2001).

“La Naturaleza, tanto como la tradición zoológica y la herencia, marcaron el destino de la mujer: el más alto y excelso de los ministerios, la maternidad” (Gregorio Marañón en Aresti, 2001:193.)

1.4.3 Feminismoak, amatasuna-hauraren hazieraren arteko bidegurutzan

Espazio-eremu tradizional horiek nola definitzen ditugun eta horien arabera nola jokatzeko dugun izango litzake gure subjektibazio prozesuen sorgunea. Sistemak berak gorputzak etekinak ateratzeko erabiltzen ditu, hori politikoki ukatzean ordea zer gertatzen da? Akademia mailan androzentrismoa nagusi izan den arren, feminismoak egituraketa eta ikuskera horiei buelta eman diela esan genezake.

Feminismoek, euren aldetik, gizarte guztietan dagoen bereizketa sexuala eta genero ezberdintasuna azaltzen, plazaratzen eta eraldatzen saiatu izan da. Horren ondorioz, XX. mendearen azken hamarkadetakoa teoria feministak ezagutza alternatibo eta saihestezina ekoiztu du zientzia barruan, ez soilik beste zerbait gaineratu egiten duelako, baizik eta alor zientifiko ezberdinetan jorraturikoa berrikusi, kritikatu eta eraldatu egiten duelako, berrikuntza maila oso altua erakutsiz (Esteban, 2006).

Alabaina, feminismoari eta emakumeen urtetako borroka eta ekarriekiko erresistentziak sortu dira gizarteko sektore politiko-ideologiko ezberdinetan. Batez ere, gizonezkoenak izan diren funtzio eta espazio berrietan sartzen direnean sortzen dira erreakzioak. Orotara, feminisмотik gehiago aztertu dira gizonezkoen erreakzioak emakumezkoenak baino, eta nik esango nuke, gizarteko sektore eskuindarren erreakzioak ikusgarriagoak direnez, errazago identifikatzen ditugula. Baina erreakzio ikusezinak eta askotan ahozkoak ez direnak ere suertatzen dira, ustez emakumeen lorpen horiek txalotzen diren sektoreetan. Finean, orden soziala mantendu eta emakumeak beraien rol eta lekuan

mantentzea nahi izaten da erreakzio hauekin, eta bereziki amatasuna eremu pribilegiatua izan da zentzu horretan.

Amatasuna ulertzeko ikuskera hegemonikoen gainean egiten den kritika nahiko berria dela esan genezake. Simon De Beauvoir izan zen, amatasuna emakumeen menpeko lotura moduan seinalatu zuen lehen feminista. Emakumeen bide bakar moduan ulertzen zela kritikatzeko zuen, eta honez gain, ama-instintua kulturaren esparruan kokatu zuen bere *Bigarren sexua* liburu aitzindarian (Saletti, 2008).

Baina feminismoek, emakumeen mendekotasuna azaldu, zalantzan jarri eta kritikatu duten arren, ez dago iritzi homogeen bat gai honen inguruan. Korrante eta bizi ikuskera ezberdinak daude eta sortzen ari dira amatasunaren inguruan. Guri dagokigunean, Elisabet Badinter eta Sharon Hays-en ekarpenetik hasia egokia litzateke:

Psikoanalisi Freudiarri buelta emanez, Badinter amatasunaren naturalizazioaren diskurtsoa deseraiki eta horiek testuinguru konkretu batean kokatu zituen. Botere-desberdintasunak eta emakumeen gutxiagotasun naturalizatua justifikatzeko duten eraikuntza kultural moduan azaltzen ditu, lan-banaketa produkzio-erreproduktzio ezberdintasunen justifikazioa deseraikiz (Badinter, 1984).

Hays-ek aldiz, amatasunaren mendebaldeko ideologia horren barruan, amatasun eredu intentsiboa aztertzen duen. Esan genezake hazierak berak garrantzia daukela amatasunaren jarrerak ulertzerako orduan. Hays-ek eredu intentsibo honen jarrera ezberdinak desberdintzeko honako 5 ezaugarri aipatzen ditu (Hays, 1998):

1. Haurrari zentralitate osoa ematea, bere interesak nukleo familiarren gainetik ipiniz, batez ere amaren interesen gainetik.
2. Eredua emozionalki guztiz absorbentea izatea, dedikazio osoa eskatzen du.
- 3.-Metodo eta ezagutza transmititzen dien adituez gidatutako haziera
- 4.-Garestia da, haurraren ongizate fisiko eta psikologikoa bermatzeko zein hezkuntza formazio jasotzeko hainbat erosotasun material eskatzen baititu.
- 5.-Haurraren orainaldi eta etorkizunaren ardura amaren gainean egotea, batez ere.

Esan dugun bezala, feminismoa ez da mundua ikusteko begirada bakar eta homogeenoa, eta feminismoaz baino feminismoez jardun beharko genuke. Amatasunaren gaiari dagokionean, diferentzia eta berdintasunaren feminismoen arteko eztabaidak aipatuz,

amatasuna eta feminismoa bueltan, egun ere perspektiba anitzetatik begiratu daiteke. Izan ere, borroka hauetan emakumeen eskubideez eta printzipioez desadostasunak egon dira historikoki, eta hainbat gatazka eta eztabaida piztu izan dira. Hainbat planteamendu gainditu diren arren, dilema dual hau, egun ere indarrean dagoela esan daiteke (Nash eta Martinez, 2013).

Egile feministen gaineko pentsamendu eta ekarpenak aztertuz, orokorki hitz eginez, amatasunaren gaiaren garrantzia azpimarragarria dela antzeman daiteke. Eta ikuspuntu ezberdinen azterketan aritzeak, feminismoen arteko eztabaidetako bat ulertzeko balio ahal digula esan genezake.

Amatasuna ulertzeko eta bizitzeko erak bi muturretan laburtu ezin ditugun arren, eztabaidaren testuingurua honela azaldu genezake: Alde batetik, amatasunak feminidadearekin daukan lotura kritikatzin duten ikuskerak daude. Ama onaren eredu, ama-instintua, edo amatasun kontzeptua identitate femeninoaren lehen ardatz izatea deseraiki nahi izan dutenak dira hauek. Bestetik, amatasunaren esperientziaren aldarrikapena eta gorespina egiten duten ikuskerak daude. Amatasuna bera, berreraiki nahi duten planteamenduak direla azpimarratzen du Salletik, amatasuna ahalduentzearekin lotu eta plazer eta ezagutza eremu bezala defendatzen dute hauek (Saletti, 2008).

1.4.4 Atxikimenduzko haziera ereduak

Feminismoaren baitan ematen ari diren eztabaida ezberdinak mahai gainean ipinita, ikerketaren muinari helduz, atxikimenduan oinarritutako haziera ereduaz jardungo dugu. Haziera eredu hau nagusiki, ama-haurra lotura emozionaletan oinarritzen da, eta amatasunaren bueltan kokatzen diren irudikariez arituko gara.

Argi dago amatasunak (eta gurasotasunak), bizitza, komunitate baten biografiarekin lotzen duela, adin-talde, ideologia, herri edota lagun-taldearekin identifikatuz. Eta hezkuntza eta hazkuntza ereduaren gaineko erabakiak ere, norberaren bizitza eta komunitatearen araberakoak izango dira. Hortaz, gurasoen eta haurren harreman berria eta horren bitartez sortzen den egunerokotasuna erabaki horien isla izango da (Imaz en Alonso, 2006).

Baina hazierari dagokionean, gurasoen (ama/aita) jarduna eta eskaera maila oso ezberdina dela esan genezake. Hazieraz arduratzean gain, euren jardunarekiko alertan egotea eskatzen baitzaie amei, gain-babestu gabe eta arduragabe izan barik. Eta beraz,

intentsitate handiko hazieraz ari garenean, amatasuna bizitzeko moduez ere ari gara, batez ere.

Atxikimenduzko haziera eredu definitzerako orduan, aurrez aipatutako Sharon Hays-en plateamendua hartu dut erreferentzia moduan. Bere irakurketan ordea, ez dira ageri amaren esperientziak eta kontakizunak aintzat hartzen dituzten korrontek. Plazer eta ahalduntze esperientzia moduan aldarrikatzen duten korronteei ere erreparatuko diegu gure ikerketa enpiriko honetan. Ildo horretatik, Carolina del Olmoren (2013) *¿Dónde está mi tribu?* liburua, amatasunaren gaineko ikuskerak birpentsatzea proposatzen duten ama-mugimenduaren erreferentzia izan daiteke. Haurrak karga moduan ulertu baino, aberastasun moduan ulertzeko proposamena luzatzen du. Eta amatasunaren gaineko aukeratzeko eskubideaz hitz egiten ari garen testuinguruan, zaintzeko eskubideaz ere hitz egin behar dela aipatzen du.

Haurren hazieraren gaineko ardura elikadura eta higieñez haratago dagoela esan genezake. Eta haurren haziera eraldaketa sozialerako beste esparru moduan ulertzen da gaur egun, askok mugimendu sozialtzat identifikatzen duelarik.

Azken hamarkada honetan batez ere, sistema ekonomiko-sozialaren gaineko ikuspegi kritikoa eraiki nahi den familia edo ingurune askotan, haurrak gizarte alaketaren motore moduan ulertzen dira. Eta bide batez, amatasunaren eta haurren haziera ereduaren gaineko interes soziala handia dela esan daiteke.

Gipuzkoako kasuan, alternatibo moduan definitu ahal ditugun sektoretatik egiten dira amatasunaren eta gurasotasunaren gaineko gogoeta eta proposamen asko. Eta Hays-ek aipatutako ezaugarriei helduz, dedikazio eta intentsitate handia eskatzen duten eredu ezberdinak aurki genitzaizke Euskal Herriko eta, zehazki, Gipuzkoako testuinguruan ere.

1.4.4.2 Atxikimenduzko haziera ereduaren jatorria

1950. hamarkadan, hainbat teoria psikologikoren bitartez, ama eta aitaren arduren banaketaren beharraz hitz egiten hasi ziren. Garai honetan, kokatzen dira atxikimenduzko hazieraren¹ gaineko teoriak, besteak beste John Bowlby-rena. Atxikimendua, haurrak bere gurasoekin edo zaintzaileekin garatzen duen lotura emozionala da, bere nortasunaren garapenean ezinbestekoa izango zaion segurtasun

¹ Kontzeptu berau ingelesez *'attachment parenting'* edo gaztelaniaz *'crianza con apego'* bezala itzuli genezake.

emozionala ahalbidetuko diona. Izan ere, segurtasuna izateak haurraren antsietate eta beldur sistema baldintzatzen du, honen arduradun bere afektu-figura nagusia izanik (ama izango dena) (Bowly, 1998).

Teoria hauek bat datoz garai horretan, funtzionalismoak egindako familiaren definizioekin. Zehazki, familiaren definizio parsoniarrak indibiduen erreprodukzio fisiko eta babes emozionalean oinarritutako familia nuklearra irudikatzen zuen. Hemendik kanpo kokatzen ziren definizioak desbiazio edo atabismotzat hartuz (Imaz, 2007).

Garai horretan planteatutako hainbat gogoetak, gaur egun ere arrakasta dutela esan genezake. Izan ere, lehenbizikoz guraso izatean, zaintza, elikadura eta bestelako aspektu batzuen gaineko informazio eta gomendioak eskuratzeko atxikimenduaren teoria oinarri duten liburu edo profesionaletara jotzen dute gurasoek².

Gipuzkoako testuinguruan, liburuez gain, korrante eta autore hauek gidatutako ikastaro, hitzaldi, jardunaldi, topaketa eta elkartruke-espazioak presentzia nabarmena daukate lurraldeko eskualde ezberdinetan.

² Autore aipagarriak: Carlos Gonzalez, Rosa Jové, Laura Gutman edo Adolfo Gómez-papí

2. METODOLOGIA

Hurrengo atal honetan lan honetan, ikerketan zehar izan dudan begirada metodologiko eta teknikoaren gaineko azalpenak bildu ditut. Zehazki, metodologia kualitatibo bati helduz, behaketa etnografiko birtualetik abiatu naiz, ondoren sakoneko elkarrizketak egin eta analisiarekin amaitzeko.

2.1 Ekarpen metodologikoak

Ikerketa honek Amatasun eredu *alternatibo* bat eraiki nahi den testuinguruan, atxikimenduzko³ hazieraren ereduak aztertzea dauka helburu moduan; eta batez ere amek haurdunaldian eta haurdunaldi osteko lehen urteetan bizitako esperientziak, desirak eta espektatibak ulertu eta diskurtsoak analizatu ditut.

Emakumeei ahotsa emanez, amen esperientziei dagokienean, erabaki bat edo beste zergatik hartzen duten ulertzeko, bide kualitatiboari heldu diot. Datu kualitatiboek esanahiak, jarrerak eta errepresentazio sozialak aztertzeko egokiak baitira (Alonso, 1998).

Kasu honetan, amatasun eredu baten alde zenbat emakume dauden baino, amek erabaki bat edo beste zergatik eta nola hartzen duten aztertu nahi izan dut. Datu kuantitatiboek eta arrazoizko motibazio sendoetatik haratago, kontzeptu konkretu batzuk nola eraikitzen diren, ikuspuntu ezberdinak nola uztartzen diren eta zer gai-ildo nagusi nabarmentzen diren interpretatzen aritu naiz. Eta errealitate soziala konposatu moduan ulertuz, esanahi, sinbolo eta diskurtsiboki, komunikatiboa, linguistikoa eta semiologikoa denari heldu diot (Alonso, 1998).

2.2 Diseinu kualitatibo eta landa-lanaren garapena

Amatasunaren eta hazierari erduei dagozkien diskurtsoen inguruko analisi bat burutzeko, triangulaketa aplikatzea aukeratu dut, bi teknika ezberdinak elkar osatuz. Modu honetan, informazio osagarri eta lagungarria sortuko da eta honek, metodologikoki, ikerketa indartuko du (Bericat, 1998).

³ Atxikimenduzko haziera ereduak haur eta gurasoen arteko lotura emozionalen indartze bezala ulertuta

Gure helburuei erantzunez, diskurtso, eredu eta esperientziak ulertu nahi direnez, metodo primarioa edo garrantzitsuena sakoneko elkarrizketa izango da. Eta elkarrizketa horretarako beharrezkoa izango zaigun lan esploratorioa egingo dugu interneteko espazio ezberdinetan aurretik.

Alde batetik, kontuan harturik gaiaren inguruan eskuragarri dugun ikerketa txostenen aniztasuna, ikerketaren lehen hurbilpen bat egiteko asmoz, online datuen azterketatik abiatu dut lana. Eztabaida-foroak, begirada feminista oinarritzat duten web-orriak, amatasunaren gaineko kontsulta-atariak eta abar. erabili ditut informazio-iturri gisa. Zehazkiago, medikuntza diskurtso hegemonikotik aldentzen diren eta kontraste lana egiten duten online-espazioak aztertu ditut, lan etnografiko aktibo bat baino, behaketa lan esploratorio bat burutuz. Horretarako, Ikerketa esploratzaileetan oso onak dira behaketak, hau da, aztergai den fenomenoari buruzko ideia orokorra ematen diguten teknikak baitira (Juaristi, 2003).

Ikerketa objektua zaigun online-espazioa, irudikarien eremua da, artea bezala. Emakumeon identitate estereotipatuaren aurrean, desberdintasunak eta aniztasuna ikustarazteko eta elkarbizitzeko eremua bihurtu da. Era berean, prozesu dinamiko moduan izan ditzaketen kontraesanak argitan uzteko gunea ere bada. Emakume batzuek interneten eztabaidatu eta irakurtzeko izan dezaketen joera, orain gutxi etxetik eremu publikora atera diren “etxera buelta boluntario” moduan ulertzen du Remedios Zafra. Eta behaketa, istorioen eta *handicap*-en identifikazio gunea da zentzu honetan. Espazio konektatua duen leku pribatuan aldaketak gauzatzen ari dira. Eta segurtasun ontologikoaren eszenatoki ontologikoa den *etxea* eraldaketara bidean jarri dezake, ingurune sozial konkretu batzuetara jotzeko beharrik gabe (Zafra, 2010).

Azken urte hauetan amatasun ereduaren gainean (batez ere esparru-birtual feministetan) sortzen ari diren eztabaidetako hariei tiraka aritu naiz. Eta etnografia birtuala ikerketa honen abiapuntua izateaz gain, objektu eta galderen iturria ere izan dela esan daiteke. Online espazio hauek, hainbat galdera birplanteatu eta birformulatzeko komunitatea ere badirelako.

Eztabaida gune eta kontsulta-web orrietan gai ezberdinei dagozkien hari eroalea identikatu dut, erabiltzaile ezberdinek partekatzen duten lotura ezberdinak ulertuz.

Behaketa lana modu pasiboan edo *lurkers* moduan burutu dut, helburuei lotutako interes zehatz batzuei erantzungo dion informazio bilketa bat eginez (Domínguez eta Alonso 2004).

Sarean izaten ari diren eztabaida hauek, bertatik bertara ulertu eta kontrastatzeko bide izan dira sakoneko elkarrizketak. Diskurtso analisia egiteko, ahozko grabazioak, elkarrizketan bertan hartutako oharak eta transkribapenak izan ditut lanerako tresna. Azken urte hauetan, gizarte ikerketa teknika kualitatibo erabiliena da sakoneko elkarrizketa; prozesu eta irudikapenak azaltzeko oso egokia delako. Ahozko grabazioek azaleko informaziotik haratago, tonu-aldaketa, ironia... kontuan hartzeko aukera ematen digu eta hauek kontuan hartzean, inplizituki esaten den informazioa ere jaso dut.

Ikerketarako unibertsoa, atxikimenduzko hazieraren aldeko jarrera, disposizioa eta formazioa jaso duten ama gipuzkoarrek osatzen dute. Eta gai honen inguruan esperientzia ezberdinak bizi izan dituzten hiru ama elkarrizketatu ditut. Amen bizi esperientziak eta erabakiak beste begirada independenteago batetik ulertu ahal izateko. Gipuzkoako kasua aukeratu dut, hurbiletik ezagutzen dudana testuingurua delako.


Elkarrizketen kopurua, lan honek eskatzen duen muga arabera definitu da. Eta fase ezberdinetan zein egoera pertsonal ezberdinetan dauden hiru kasu aukeratu ditut, lanaren muga barnean ekarpen esanguratsu batzuei helduz.

Elkarrizketan bertan, garrantzia handia eman diot, konplizidade minimo bat sortzeari aurretik, nire ikerketaren helburua eta abiapuntua zein den azalduz. Modu honetan, patxadaz eta erosotasunez egin ahal izan dira elkarrizketak.

Edukien analisiaren planteamendua honako hau izan da: Lehenik eta behin, sarean aurkitutako elkarrizketa-eztabaida esanguratsuen irakurketa egin, sarean aurkitutako gai-ildo errepikatuenen zerrenda egin eta ondoren elkarrizketarako interesgarriak suertatu ahal diren galdera eta kezka posibleen zerrenda egin dut. Sakoneko elkarrizketei dagokienean, elkarrizketak transkribatu ondoren, irakurri eta gai nagusiak atera ditut, ondoren bertako ildo eta kezka-gai nagusiak identifikatzeko. Etnografia birtual eta elkarrizketetako ondorioak bildu eta kontrastatu ditut, triangulazio metodoari erantzunez. Aipatu beharra dago, transkribapenak irakurtzean, behaketa birtualera jo dudala berriro pista berriak aurkitu eta ondorio nagusiak borobildu ahal izateko.

ETNOGRAFIA BIRTUALA

- Behaketa birtualean kontsultatutako web orri nagusiak



Nazioarteko webguneak

<http://ginecologianatural.wordpress.com/>



Estatu mailako webguneak

• <http://www.pikaramagazine.com/>



Gipuzkoako webguneak

• <http://guraso.com/>

• <http://www.ttiklik.com/>

• <http://sabeletikmundura.com/>

SAKONEKO ELKARRIZKETAK

Debagoiena, 41 urte, 2 haur	Buruntzaldea, 38 urte, haur bakarra	Tolosaldea, 30 urte, haur bakarra
-----------------------------	--	--------------------------------------

2.3. Ezagutza feminista sortzen: metodo, metodologia eta epistemologia feministari hurbilketa

Ikerketa prozesuan izandako zalantza nagusiak metodologikoak izan direla onartu behar dut. Izan ere, nola kudeatu ikertzaile eta esperientzia zehatz bat bizi izan duen pertsona batekin arteko harremana? Nola egin nezakeen bere ikuspuntua eta bizi-esperientzia deslegitimatutako barik amatasunaren gainean informazioa jasotzeko? Eta nola hurbildu pertsona batengana gai sentikorra eta delikatuak izan daitekeenean? Ba al neukan ezagutza eta tresna egokirik begirada feminista batetik aritzeko? Zer da begirada feminista bat izatea ikertzen dugunean?

Aurrez azalduko dugun moduan, zientziaren ahotsa historikoki maskulinoa izan dela nabarmendu beharra dago. Mendebaldeko gizonezko zurien begietatik eraiki dira ikertzeko eta ezagutza ezberdinen gainean jarduteko moduak. Ikerketa tradizional hauen analizatzeko moduek ez dute emakumeen parte-hartze soziala azaldu, kasu askotan, gizarteko sektore ugariaren eguneroko bizitza ikusezin bihurtuz (Harding, 1987).

Begirada feministaz dihardugunean, lehenbizi ikerketa tradizionalen nahasten diren hiru kontzeptu argitzea komenigarria da. Izan ere, metodo, metodologia eta epistemologia harremanetan dauden arren, ez dute esanahi bera. Metodoa, informazio bilketarako teknika litzateke. Metodologia, ikerketa prozeduren analisisen gaineko teoria. Eta azkenik, epistemologia, ezagutzen justifikazio eta teorien gaineko auziak lirateke (Harding, 1987).

Hau kontuan harturik, nire ikerketaren abiapuntua zein den ulertzea ezinbestekoa izan zait. Hau da, nire kokapena, ama ez den emakume gazte eta ikasketadunean egonik, subjektu-objektuarekiko harremanaren gainean gogoeta bat egitea komenigarria litzateke.

Hasteko, metodoari dagokionean, elkarriketatuekin nolako harreman izango dudan, elkarriketatuari entzutean zein jarrera hartuko dudan eta bigarren mailako datuak eskuratzean zein iturritara joko dudan aurrez pentsatu beharko nuke (Harding, 1987).

Metodologiari dagokionean, kualitatiboa izan arren, metodologia kualitatiboak ez du bermatzen ikuspegi feminista izatea eta hainbat aspekturi erreparatu beharko nioke ikerketaren momentuan. Izan ere, soziologiari dagokion liburu metodologiko gehienetan ikertzailea elkarriketan emozionalki azaltzea, ikerketaren nondik-norakoak eta sententzioak partekatzea baztertzen da. Testuinguru antinatural honetan, elkarriketatuak ez dira identifikatuta sentitzen eta ez dira lasaitasunez eta patxadaz jarduten.

Eta ikertzailearen beharrez gain, elkarriketatuaren beharrak ere kontuan hartu beharko lirateke. Gairen baten inguruan hitz egin nahi ez bada edo sakonago hitz egin nahi bada errespetatuz, adibidez. Hau honela ez balitz, hainbat gertakari oharkabea pasako lirateke, eta elkarriketa ahaldunderako baino, birsortze mekanismo huts bat izango litzateke (Diaz Martinez eta Dema Moreno, 2013).

Epistemologikoki, ezagutzaren sorkuntzan, ikertzailea ikertuaren plano kritiko berdinean jarri beharko litzateke, bere ezagutzari garrantzia aitortuz; gure abiapuntua biluztuz, pertsona erreal, desiradun eta interesdun moduan azalduz (Harding, 1987).

Orain arte, erabakiak nola eta zeren arabera hartzen diren ez da izan garrantzitsua zientziarentzat, ezta bizitza publikoan egiten diren beste jardun batzuen ere. Hau honela, nire ikerketa begirada feminista batetik diseinatzeko, emakumeen esperientziei erreparatuko dien lana izan beharko litzateke. Eta galderak euren esperientzietatik eraikiak izango dira, emakumeek eurak definitu behar baitituzte zeintzuk diren esanguratsuak diren kezka eta esperientziak.

3. GARAPENA: Edukiaren azalpena

3.1 AMATASUNA NOLA ULERTZEN DEN

3.1.1. Amaren ardurak eta autonomia. Aitaren ardurak.

Ikerketa honetan amaren ardurez ari garenean, batez ere, erditzetik haurraren lehen hiru-lau urteetararteko garaiaz arituko gara. Hau da, Erditze-ondoko garaiaz batez ere, sarean gertatzen diren eztabaida eta artikuluak zein elkarrizketa gehienak, fase horretara mugatzen direlako.

Hasteko, behaketa lanean antzeman dut, hazieraren gaineko ardura eta betebeharrak aipatzean ‘guraso’ hitza erabiltzen bada ere, interneteko eztabaida eta kontsulta gune ezberdinetan, erabiltzaileak nagusiki emakumeak direla. Eta Gipuzkoako webgune asko gurasotasunaren gainean aritzen badira ere, guraso.com atarian adibidez, amatasunanaren gaineko artikulu eta eztabaida guneak gehiago dira.

Elkarrizketei helduz, haurraren behar eta norberaren nahiak gurutzatzen dira askotan, eta tentsio moduko bat sortzen dela esan daiteke. Eta ama bere roletik despistatzeak errudun sentitzera darama kasu askotan.

Haurrak amarengandik hurbil egotea funtsekoa izanik, hurbiltasun hori, amak behar duen eta sentitzen duen zerbait bezala ulertzen da. Modu honetan, haurrak segurtasuna, afektibitatea, kontaktua eta babesa jasotzen du bere ingurune hurbiletik.

Haurrarekiko konexio hori, desberdin ulertzen da aitaren kasuan. Amaren euskarri moduan egon beharko lirateke, baina aitek ez dute erreferenterik horretan.

Aitaren figura eta amarena desberdindu egiten dira beraz, ama-haurra eta aita-haurra lotura emozionalak banatuz. Eta aitarekin haurrak duen atxikimendua desberdina dela azpimarratzen dute.

Amaren ardura denboran konstantea da eta ez dauka etenik, bere autonomia hori erlatiboa da aitaren aldean. Esanguratsua da, asistentzia konstante horrek sortzen dituen buruhaustek, normalean aitortuak ez direnak.

Hor funtzionatzen dute askotan antolaketa horiek, emakumea/ama denbora guztian pentsatzen dagoelako besteek zer behar duten, hau txukundu eta bestea egin eta... Gauza txikiak, lan ikusezinean. Baina nik uste hor emakumeak jarraitzen dugula hor modu handi batean (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

Ardura konstante horren ondorioak ere aipatzen dira, nekea adibidez. Eta neke horren inguruko kexak edo aipamenak ezkutukoak dira nagusiki gizartean. Ez baitago ondo ikusia orokorrean, haurrak nekatzen zaituela aitortzea. Etxean bertan, mantentze-deskonektatze horretan, kide batek amore emanez gero tentsioak ere sortu ahal direla aipatzen dute.

24 orduak umeekin egoteko beharra neukan nik, eta mutilak ez. Deskonektatzeko beharra zeukan. Baina gainera nik bizi nuen bere deskonektatzea zerbait nahiko toxikoa bezala ez? (S.E. Miren, Debagoiena).

Atxikimenduzko haziera ereduak defendatzen duten hainbat autorek eragina izan zezaketen deskribatu berri dugun diskurtso horren sorreran, aitaren rola kanpoan dagoen babesle modura ulertzen dutelako. Laura Gutmanek esate baterako zera dio:

Si consideramos el puerperio como un largo periodo de franco desequilibrio emocional, sera necesario imaginar “una cadena de sostenes” que hagan posible dicha travesia. Pensaremos en primer lugar que significa la presencia del varon, ya que hoy en dia lo consideramos primordial dentro de la estructura de la familia nuclear. Para pedirle sosten (economico y emocional), intentaremos describir que necesitaria adquirir o desarrollar dentro de si para lanzarse a tan dificil tarea, o bien con que valiosas situaciones se benefician muchos de ellos sin darse cuenta (Gutman, 2013:79.) .

3.1.2. Haurraren beharrak

Atxikimenduzko haziera ereduak aipatzean, zuzenean haurraren beharrak eta haur-guraso artean sortzen den lotura edo sentimenduzko erlazioaz ari gara. Sentimenduzko erlazio horiek batez ere, haurren garapen egokiaren baldintza direlako zaintzen dira.

Sareko kontsulta guneak, haurren beharren gaineko zalantza-argitze guneak dira batez ere, haur-guraso harremanaren gainekoak, hain zuzen. Foro eta eztabaida-gune feministetan ordea, haurren beharrez baino amatasunaren gaineko esperientzia eta hautuen gaineko eztabaidak ematen dira. Haurren beharrez diharduten gune askotan ‘gurasotasuna’-ri zuzendutako artikulatuak idazten dira, beste batzuetan ordea ‘amatasuna’ etiketa erabiltzen da.

Elkarrizketetan, erlazio afektiboen gainean dihardutenean, alde batetik, diskurtso naturazale baten kutsua nabari da, “gorputzak eskatzen dit” edo “beraiek gure bezala egiten badute...” bezalako esaldietan ikus genezake hori. Amatasuna eta ekologiaren diskurtsoen arteko uztarduraren emaitza izan daiteke berau. Berreskuratu beharreko zerbait moduan ulertzen dute ama askok, gorputzaren eta haur-ama harremanaren esparrua, naturan betidanik gertatu den zerbait izan baita hori (Rodrigañez, 2006).

Lehoiak, emeak, haurrak dituztenean, bueno todos los felinos, no salen a cazar, no cazan practicamente. Justu justuan, ez? Ba bizitzeko. Baina umeekin daude (S. E. Miren, Debagoiena).

Bestalde, kontaktu fisikoaren eta segurtasunaren ideia hainbatetan aipatzen dute, eta zentzu honetan, haurrak seguru sentitzeko eta amaren besoak hurbil izateko beharra ikusten dute. Haurrek lehenengo urteetan izan dezaketen beharra eta ondoren behar dutena desberdindu egiten dute. Segurtasuna, mimoekin, berotasunarekin, elkarrekin lo egitearekin etab. lotzen dutelarik. Emozioak adierazi eta kontaktu fisikoa da haurrek eskatu eta behar dutena (jaio baino lehen eta ondoren), eta hor amak dauka paper funtsezkoena.

Haurraren erritmoa errespetatzea aipatzen dute, bere garapenera moldatzea denborak eta familiaren egunerokotasuna, haurraren zaugarritasuna eta bere garapena errespetatzeak ondoren haurraren eboluzioan ondorio positiboak izango dituelakoan. Haurren erritmoa errespetatzeak baina, ez du mugarik ez dagonik esan nahi, mugak ere segurtasunaren ideiarekin lotzen baitira.

Neretzat inportanteena da umearen erritmoa errespetatzea, umeari berari behar duen garapena uztea. Azkenean hegoak ez moztea. Umea propietate bezala ez ulertzea, ze azkenean umea nire umea da eta egingo du nik esaten dudana... Neretzat filosofia da, ume bat da, daukat zortea nirekin dagoela eta niri tokatzen zait nik berari ematea ahal dudan onena (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Momentu askotan, haurraren beharrak amaren beharrekin lotzen dira, amak behar duena haurrarekin egotea eta haurrak behar duena amarekin egotea dela adieraziz. Erlaxazio eta deskonexio momentua haurrarekin egoten zaren denbora dela esanaz, edoskitzearen kasuan esate baterako:

5 minutu dira. Eta egon zaitezke nekatuta, baina azkenean da berari dedikatzen diozun denbora eta zuri ere dedikatzen zaren denbora. (...) Baina denbora hori fisikoki ere, ez? Umearekin pegatuta, umearekin baldintzatuta eta baita ere atsedean bat, eskaini zure buruari (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Ikusi dugunez, erditze-ondoko garaian definitzen dira batez ere ama-aita rol desberdinak. Haurren ondoan egoteko beharra azpimarratzen da, bere garapenari begirako baldintza baita berau. Aitaren rola kanpo-espazio batean kokatzen da, eta neurri batean, ama-haur harremanaren babesle papera izango du. Amaren ardura denboran konstantea da, eta ardura-rol banaketa honen ondorioak bigarren plano batean uztean dira.

3.2. EREDU ETA ERREFERENTE BILA

Jaso ditugun edo inguruan ikusten ditugun ereduak maiz ez gaituzte konbentzitzen, eta kasu honetan gurasoak/amak, haurrak hazteko beste erreferente eta eredu batzuen bila aritzera daramatza.

Haurren haziera bi ikusmolde nagusitan banatu dela esan daiteke, haziera eredu pop-a edo psikologia pop eta haziera eredu naturala (guk atxikimenduzko haziera deitu dioguna). Haziera eredu pop-a konduktismo eta psikologia ebolutiboarekin lotzen da. Hain zuzen, dekalogoez dakartena bete ezkerreko haurraren portaerak aldatzen direla, eta gatazka orok konponbidea daukala defendatzen duten ereduak dira, eta Eduard Estivill doktorea daukagu hor tartean (Burgaleta, 2011) (ikus. Erreferentziazko adituak atala). Eredu horiek ordezkatzeko dituen haziera natural-alternatiboan oinarria helduen egunerokoa haurraren erritmora eta beharretara egokitzean dago.

Elkarriketatuak dagokienean, haurra jaiotzean, bizitza beste modu batera antolatu eta planteatu (lanak, familia, aisia, lagunak...) izan dute, haurrak dedikazio bat eta hurbiltasun bat eskatzen baitu.

Kontzeptu hori, umea daukat baina nire bizitzarekin jarraitzen dut. Orain, zure bizitzan ume bat dago ez? Ikuspegia beste bat da. Nik behintzat oso argi daukat, ez da nire bizitza eta gero aparte umea nire bizitzaren parte da eta gainera erabaki baten ondorio da. Orduan zergatik bereiztu nire bizitzatik (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Helduok ditugun arazoak haurren lehenengo etapan dutela jatorria azpimarratzen dute, eta haurren behar horretan zentratzeak hainbat gauza alde batera utzi eta beste filosofia bati ekitea suposatzen duelarik. Gauzak horrela, haurren beharrak, haurrek eurak identifikatzen dituzte.

Nik ideala ba helduekin bezala, ba patxada, ez masifikazio gabe, tratu onetan, ondo pasatzeko aukera, ordutegiekin presiorik ez, eta pixka bat begiratu pertsona. Orduan beraiek badakite zer behar duten, zer ez. Ze askotan, guk dauzkagu zailtasunak gelditu eta begiratzeko (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

Eredu ezberdin eta alternatibo baterantzko aldaketa aipatzen dute, gainontzeko ereduak eragin negatiboak ekarri baitituzte. Horren erreferente moduan, Europa iparraldeko estatuen adibideak ematen dituzte.

Bestalde, gizartean nagusitzen den haurrak hazteko modua erosotasunarekin lotzen dute, eta eraiki nahi den atxikimenduzko haziera hori gurasoen aldaketatik hasten da.

Goaz beti ordaintzera, nik ordaintzen dut eta ala! Que me lo den hecho. Eta planteatzen diezunean, ez eske zure ereduarekin aldatu behar duzu, umea da reflejoa bakarrik... ta agian da ez

zabiltzatelako gauza egokiak egiten... ba ez dute nahi entzun. Baina bai e? guk ematen dugu. (S.E. Miren, Debagoiena).

Atxikimenduan eta naturaltasunean oinarritutako hazierak aipatzen dituzte nagusiki, haurrei begira eta haurretatik hurbil egonez gero arruntena litzatekeen eredu moduan. Eredu aldaketa horren beharra sumatzen dutenak gutxiengoa diren pertzepzioa daukate, euren ikusmoldea salbuespen moduan ikusirik. Orokorrean gurasoen gehiengoak zein instituzioek, ez daukate haurrak beste modu batera hazteko kontzientziarik eta.

Igual garrantzitsua da umea natural ibiltzea. Ebidentea dena. Baina niretzat da ebidentea. Hemengo jende askok inoiz ez du eramaten mendira, eta inguruan dauka. Nik uste badagoela alde batetik aldaketa hori, baina instituzioetatik egiten ez den bitartean, eguneraketa hori, ez goaz inora (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Hainbat faktorek eragin dute beste eredu bat eraiki edo haurrak hazteko eredu hegemonikoari zirrikituak topatu nahi izatea. Hainbat esparrutan ikusten dute hori, bereziki, hezkuntza-sistema eta medikuntza-sisteman aldaketa nabarmenak egiteko beharra sumatzen dute. Honez gain, erditzeari, eredu zaharren erreprodukzioari eta gida-liburuetako hainbat metodori ere garrantzia berezia ematen diote.

3.2.1. Hezkuntza sistema

Hezkuntza sistemarekiko oso kritiko azaltzen dira, haurren “aparkadero” moduan ulertzen baitute. Ordu kopuru aldetik, eskola-hautzaindegi ereduak baztertzen da, gehiegizkoa delakoan eta hezkuntza-sistemak orokorrean ez duela funtzionatzen azpimarratzen dute.

Lehenengo 2 urtetan zaintzen baduzu, sartu behar badituzu sistema batean ez duena funtzionatzen, ez diona utziko bere gaitasun propioak ondo garatzen. (...) Nik uste dena irauli behar dela, baina hor ez daukagu biderik... (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Eskola eta hautzaindegiak guztiz baztertzen ez diren arren, sozializazioarako eta balioen transmisioarako etxea edo eremu hurbila hobesten dute.

Eta nik hori da ez nuena nahi, nik ez dut nahi sistemarako lan itxia, eta nik ez dut nahi nire umeek sistemarako lan egitea, eta pixka bat hortik tiraka ez? Eta ez dudana nahi da, andereñoak erabakitzea ze balore eduki behar dituen ume horrek. Ez!!!! Nik transmititu nahi dizkiot baloreak (S. E. Miren, Debagoiena).

Eduki aldetik zenbakiei garrantzia gehiago aitortzen zaiela dio elkarrizketatuetako batek, eta ez zaiela haurren gaitasun ezberdinei garrantzirik ematen. Izan ere, ez dago aukerarik haurrei atentzio pertsonal eta hurbila eskaintzeko. Esan genezake, kritika horrek eragina duela eskola-eskaintzari dagokionean, izan ere, *adimen emozionala* eta *arreta pertsonalizatua* eskaintzen duten eskolak geroz eta gehiago dira. Halere, eskola eskaintza eta azaleko diskurtso horrekiko nahiko kritiko azaltzen dira, aisialdi eredu ezberdin bat topatzea posible den arren, bederatzi orduz eskolan badira ezinezkoa

iruditzen baitzaie emozio eta arreta hurbila eskaintzea. Eskola txikiak edo eskola alternatiboak ere aipatzen dituzte eredu erreferente moduan.

Pedagogikoki, ardurak hartzen ikastea eskolaren ardura den arren, hainbat balore gurasoen edo inguruaren ardura izan behar duela ere azpimarratzen dute. Kasu honetan, denetariko iritziak daude, batzuek etxekoen lana dela azpimarratzen dute, baina bada kritikarik zentzu honetan:

Eskolak erakutsi behar dizkie hainbat gauza, eta nire ustez ez da eskolaren ardura. Igual da komunitatearen ardura... eta ez amarena. Eta hori ere... horrekin asko kabreatzen naiz. Bere ama? Aizu ze ama! (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

3.2.2 Sistema medikoa eta diskurtso medikoa

Haurraren hazieraren gaineko gomendioak psikologia pop-arekin lotzen dira, eta atxikimenduarekin lotutako gogoetetatik gomendio horiek arbuiatzen dira era malgu batean.

Hezkuntza sistemarekin ez bezala, eredu propioak eta bide propioa izateko baliabideak aurkitzen dira medikuntza ofizialaren aurrean. Irizpide propioak eduki edo medikuntza tradizioaletik kanpo dagoen beste diskurtso batzuk eraikitzeak, kontrastatze eta informazio biltze lana eskatzen dutela gehitzen dute elkarrizketatuek. Zentzu horretan, ekofeminismotik hurbil kokatzen direla esan genezake. Amatasuna eta hazieraren kosifikazioa gertatu dela aipatzen du Vandana Shivak, antzinako ezagutza eta berezko gaitasun eta ongizatea alde batera utziz (Shiva, 2004). Ildo beretik, medikuen ohitura txarren adibide ugari agertzen dira amen esperientzietan:

Eta medikua hasi zen –igual ba emiozu biberioitxo bat...- esan nizun, utzi bakean. –ia, baina ez badu pisurik hartzen...- Utzi bakean. Eta bai, egia da pediatriarekin hor eduki ditugula gure diferentziak eta horrela, baina bueno... Argi baldin badauzkazu gauzak... Baina lan handia egin behar duzu (S. E. Miren, Debagoiena).

Beste bide batzuk bilatzen ibiltze horrek ez du esan nahi beste aditu batzuegana jotzen ez denik, baizik eta kontrastatze lan hori gauzatzeko sarritan beste osasun-aditu edo espezialistetara jotzen dutela.

Ni ere ez naiz joaten medikura, ez dut inoiz botikarik hartzen, saiatzen naiz beste modu batera egiten, ta bueno daukagu mediku naturista bat tarteka joaten garena 2 urtetik behin, eta azkena ere eraman genuen txikia... eta oso ondo dago pues iasta! Pixka bat horretan ere nahiko malgua (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

3.2.3. Haurdunaldiaren fase ezberdinak

Haurdunaldia eta erditzea bera medikoki kontrolatua izaten da, eta emakumeek haurdunaldiko etapa ezberdinean (bereziki erditzean) erabakitze eskubidea izatea

hobesten dute. Modu honetan, alde batetik, emakumeek euren esperientzia ama moduan azaltzen dute eta bestetik erditzeak berak haurrarengan izango duen eraginaz ere dihardute.

Haurdun dagoen emakumea eta haurdunaldia bera errespetatua izan dadila aldarrikatzen dute elkarriketatuek, neurri handi batean. Legalki babestua izateaz gain, sozialki kontzientziazio falta dagoela aipatzen du, adibidez, Nereak.

Orduan sozialki izugarritzko iraultza behar da, eta amak errespetatuak izan behar dute ama izan aurretik. Emakumeak eskatzen dituen eskubide horiek, gero feministek galtzen dira haurdunen eskubideak, ez? Emakume naizelako naiz gai ama izateko, adoptatu dezaket ume bat, baina emakume naizelako daukat gaitasun hori. Eta izugarritzko boterea da. Ume bat sortzea (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Erditzeari berebiziko garrantzia ematen diote. Alde batetik, erditzea esperientzia moduan bizitzeari, erditzea emakumeak berak nahi duen inguruan eta nahi duen moduan bizitzeko aukera izateari. Erditze naturala, etxean erditzea, doulairen figura etab. aipatzen dira. Modu honetan, emakumea bera kontzentratu daiteke eta ingurukoak prozesu guztia zaintzen arituko dira.

Onbre nik nahi nuen esperientzia hori izan, eta nahi nuen etxean izan. Eta egia esan geroz eta... erditu eta berehala, holan, ospitaleko bisitak ondoan ezakizer... osea zure ohean zaude en un puto globo, eta nituen bi pertsona disposizio guztiarekin, eta niretzat horiek dira baldintza egokiak eta onak (...). Niri gustatu zitzaidan, ze nolabait, etxean erditzeko prozesu horrek arduradun zu egiten zaitu, bueno arduradun, bai, pixka bat ze gertatzen den, nola zauden... horren ardura zurea da (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

Erditzea nolako izango den erabakitzea ez da amaren ardura soilik. Elkarriketatuek, euren erabakia errespetatua izan dadin behin eta berriz errepikatzen badute ere, erabaki horretan emagin edo medikuek aholkatzea ez da baztertzen. Ezta haurra ospitalean izateko aukera ere, bertan dauden baliabideak beharrezkoak iruditzen zaizkielako. Edozelan ere, erditzea ospitalizatua denean, ahalik eta aukera gehien izatea hobesten dute: baineretan erditzeko aukera, bisita gabe, episotomia eta zesareak saihestuz...

Izan ere, haurdunaldian zehar ikastaro ezberdinetan ama asko zaintzen diren arren, erditzeak ondoren dituen ondorioak eta arriskuak aipatzen dituzte. Medikuek, zesareak eta episotomiak behar baino gehiago egiten dituztela azpimarratzen dute, emakumeei euren erditzeko gaitasuna ukatuz. Bestalde, erditzea bera sexualitatearekin harremana daukan zerbait moduan ulertzen da.

Jendeak disfrutatu egiten du, bale, mina dauka. Baina minetik gozamenera zenbateko aldea dago? Askotan berehala pasatzen zara, eta errespetatzen baduzu, eta emakumeak esperientzia positiboa bizi badu, erditzea orgasmikoa baldin bada... ba begira! Bizitzako orgasmorik handienak edukiko ditu, ez? Sexuala da, akto sexuala da. (...)Eta erditzeak markatzen du erabat ondorengo bidea, umearekin daukazu harremana, guztiz baldintzatzen da... (S. E. Nerea, Tolosaldea).

3.2.4. Eredu zaharren erreprodukzioa

Eredu eta gizarte eraldaketaren gaia askotan aipatu dugu, eta hurrei atxikimendu eta denborarik ez eskaintzea eredu zaharrak birsortzearen ondorio moduan konprenitzen dute. Ildo honetatik, aurreko belaunaldiek edota gaur egungo guraso askok hartu izan dituzten erabakiekiko nolabaiteko kezka bat sumatzen dute.

Haurrak izan aurretik, gurasoek lehen planoan izan dituzten hainbat esparru, militantzia adibidez, beste modu batera planteatu beharreko eremu bezala ulertzen dira. Militantziaren gaiari helduz, elkarriketatuetako batek ideologia ezkertiar eta abertzaleak diren eremuetan ere, balore tradizionalak errepikatzen direla aipatzen du.

Ez nuen ulertzen hori, nola supuestamente, ezkerreko jendea izanda, eta beste balore batzuk eduki biharko genituzkeela: errespetu baloreak, ikasten uztea, euren bidea egiten, guk eskatzen duguna (S. E. Miren, Debagoiena).

Honez gain, adierazgarria da, egungo guraso ezberdinen artean dagoen aldea, edo behintzat eurak oso modu ezberdinean bizi dute eurak hurrei eskaini nahi diotena eta beste guraso batzuek eskaintzen diotena. Haurrak zer egin behar duen eta nola erabakitzeke, haurrak autonomoak izan behar direla aipatzen da.

Niri gogora zetorkidan pixka bat, hemen bizi dugun konfliktoa, Euskal Herria, Estatu Espainola ta Estatu Frantsesa? Nik esaten nuen, umeak Euskal Herria dira. Ta independentzia nahi dute (...) Ta nagusiak estatuen moduan ari gara ez? Ez, ez, ez hori ez! Hori eztakizer! Nik egingo dizut... (...) joe, ta ez gara konturatzen? Ez ginela gai ume bati hori ematen, eta kriston mina egin zidan horrek. Oso haserre egon nintzan denboraldi bat. Ez nuen onartzen hori (S. E. Miren, Bergara).

Haurren hazieran, hizkuntza eta balioen transmisioan ama arduradun nagusia izan da aurreko belaunaldietan, eta egun ere horrela gertatzen dela aipatzen du Elisak:

Baina umea nola dijoan edo, ze pentsatuko duten... baina neri ez dit behin inporta izan! Ze esaten duten nitaz... umeari... ke baia komo kiera! Baina ni harrituta nere buruarengatik, honek kezkatzen nau? (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

Lehen aipatu bezala, emakumea da, oraindik ere, ikusezinak diren lan horiek egiten dituen, baita haurren hazierari dagokionean ere. Nahiz eta teorikoki ulertu rola aldatu behar direla, antolaketaz haratago dagoen zerbait da. Hori da erroan dagoen arazoa.

Fregau está, baina ez dago jasota bestearentzat. Nik adibidez amari esaten nion, amaaaa!! Baina orain ikusten dut eredu horiek errepikatzen ditugula, jooooooder... maila txikiagoan beste antolaketa batekin, baina fondoan badago, banaizela ni etxean gelditzen ez naizena. Egoten naizenean nagola beti, hau eta bestea eta bestea. Eta hori ez da ikusten. (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

Orohar, ereduak dagokienean, amatasuna nork bere parametro propioen arabera eraikitzeke beharraz dihardute. Parametro propioak baina, gizarte eredu eta egituraketa zehatz baten ondorio ere badira. Eta eredu alternatiboak eraikitzerakoan ere,

erreferentzia ezberdinak zein testuingurutan sortzen diren aztertu beharra dago. Aurreko belaunaldien haziera ohiturak eta erabakiak gaitzezteak ez baitu bermatzen emakumeen eskubide eta aukeren gaineko gogoeta egitea.

3.3 ESPEKTATIBAK ETA DESIRAK

Haurrak izateko eta haurrak hezteko erabaki prozesu horiek espektatiba eta desira batzuen arabera egiten dira. Erabaki horiek zein testuingurutan, noren artean eta zein helbururekin hartzen diren ulertzea ezinbestekoa zaigu ikerketa honetan.

Eske nik uste hor desberdintasuna da, nola erabakitzen duzun edo nola iristen zaren ama izatera. Gurea oso erabaki kontzientea izan zen, prozesu bat eraman zuen eta nik banekien prozesu horretan nire bizitzako gauza batzuk aldatuko zirela (S. E. Nerea, Tolosaldea). Batzuetan erabakiak oso kontzienteki hartzen diren pertzepzioa izan dezakete amek. Baina aurrez irudikatutako haziera eta bidea egin nahi izateak ez du esan nahi praktikan helburu horiek erabat betetzen direnik.

Ez dut nahi umeak horrelako tokietatik pasatu behar izatea. Banekien, bueno, nahi nuen perfektua izatea, baina gero konturatu nahiz ez dela existitzen perfekzio hori, orduan, bueno, ahal den heinean (S. E. Miren, Debagoiena). Eta batez ere, bide hori ez dagoelako gurasoen edo inguru hurbilaren esku bakarrik, beste guraso batzuen ikuspegiak eta instituzioen ikuspegiak ere baldintzatzen baitute. Nahiz eta atxikimenduan zentratu, norberak ahal duena egin dezakeela azpimarratzen dute.

Gizarteko beste alor guztietan bezala, idealizazio eta gizarte irudikapen ezberdinak egiten dira amatasunaren inguruan ere. Kanpo mailan, emakume eta ama eredugarri izateko presio etengabea bizi dugu emakumeok. Baina badaude, arau multzo horiek deseraikitze mekanismoak ere. Eta barne mailan, guk gure eredu propioaren idealizazio eta espektatibak eduki genitzake, baina baita gure desira horien huts egite eta ez betetze hori onartzeko ahalmena eduki ere.



Ginecología natural ataria

Idealizazioaren gaia, bereziki etnografia birtualaren bitartez eginiko hurbilpen esploratorioan aztertu nuen. *Ginecologia natural* Hegoamerikako webgune eta atarian aurkitutako hainbat artikulua eta liburuen bitartez antzeman nuen, ama izatearen eta amatasuna esperientzia gisa bizitzearen gaineko idealizazioa eta aldarrikapena.

3.3.1 Amatasunaren idealizazioa

Kanpo mailan, jendartean egiten den itxurazko ama-ereduaren gaineko kritika egiten dute elkarrizketatuek, amaren esperientziak eta emozioak desitxuratzen dituen itxurazko amatasuna nabarmenduz. Amek bizi ahal duten desgastea, nekea, erditzea etab. itxurazko zoriontasun baten atzean ezkututzen direlarik. Fase ezberdinetan suertatu ahal diren esperientzia negatiboak aipatuz, errealitatearen desitxuratzeari dihardute:

Bai, ze hemen da... Ai ke estar estupenda. Umea jaio ta hay que estar estupenda! Ir a la pelu, ir al gimnasio, eta eztakizer... Ba ez! Ba agian urte batzuetan... ez duzu nahi hori egiterik. (S.E. Miren, Bergara)

Esaten baldin badit zesarea bat egin behar dudala, ba zesarea bat egin behar dut. Ta bueno, ba zorte on! Ze gero zesareatik errekuaratzeari oso gogorra da. Hor inork ez dizu kontatzen, eta geroxeago Shakira juten bada eta zesarea edukitzen badu 2 hilabete lehenago ze gero gira dauka... Joe Shakira ze ondo ez? (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Kritiko azaltzen dira, orokorrean gizartean haurren haziera ereduaren gainean eraikitzen diren idealizazioekin, hainbat diskurtso zalantzan jarritz. Kritiko azaltzearekin batera, ama eredugarri eta arduratsuaren ideia eurak ere barneratuta daukatela esan daiteke.

Ta zuk diferente egitea, ba neri egia esan ez dit eragiten, argi daukat, eta izango da pixkat gure ongizatea eta berearen artekoa bilatzen jutea. Baina ez diskurtsoak egiten duelako. Ordun diskurtso horren beste muturrean ba badago, diskurtso ideal hori de ama bolkadisima.. natura eztakizer... (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

Barne mailan, ordea, haurra modu hurbilago batean hazteak eta etxean hezteak emaitzetan nabaritzen dela aipatzen dute. Eta eskolara joaten diren gainontzeko haurren arteko konparazioak egiten dituzte. Era berean, baserri-munduko haziera ereduarekin konparatzen da, baita erditzeko antzinako metodoekin ere.. Ama izateko, inguruak baldintzatzen duena eta gizartearen presioa gaitzesten badira ere, edoskitzearen, erditze naturalaren eta atxikimenduzko haziera ereduaren idealizazioa nabaria da elkarrizketetan.

Umeak behar guztiak asetuta dauzka, eta orduan badauka gaitasun hori garatzeko denbora. Esaten duzu, kontxo! ume guztiak behar guztiak asetuta badauzkate, igual ez dira hasten hitz egiten 2 urterekin, igual urte eta erdirekin hasten dira... (S.E. Nerea, Tolosaldea).

Erditzeari dagokionean, prozesua bera atsegingarria bezain gogorra izan daitekeela, baina bertako esperientziak ezkutukoak direla aipatzen du Nereak. Baina kritika hori batez ere, medikalizatutako eta teknologikoki kontrolatutako erditzeen kasuan egiten da.

Eta erditze ona eduki duenak izugarritzko esperientzia onak eta mundu guztiak eduki du erditze bat, -erditze ona, ze ondo, ze ondo... min pixka bat? Bai, ba episotomia egin zidaten baina ez da ezer...- galdetzen diozun arte, benetan nola izan zan erditzea? Eta orduan asko negarrez hasten dira ez? (S.E. Nerea, Tolosaldea).

Kasu batzuetan, amatasuna esperientzia bakar moduan irudikatzen den arren, “rol tradizionalera kondenatua dagoen itxurazko emakume modernoa”-ren ere agertzen dute.

Suposatzen da teorikoki gaur egungo emakumeak errekurtso gehiago ditugula gehienak erabakiak hartzeko, pixka bat nola kudeatu bikotea-etxibizitza-lana-denbora librea... (...) baina... badago presio bat dena egin behar dugula eta dena ondo eta guapak egonda, kirola eginda.. ama perfektu eta etxea eztakizer, amante vandida pero no demasiado.... Hori pixka bat... Eso es una puta carcel! (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

3.3.2. Nolako ingurunea nahi dute haurrentzat?

Haurren haziera modu alternatibo batean planteatzeak etorkizuneko gizarte hobe baten ideiarekin lotura egitea dakar. Gurasoek amesten duten gizarte hori nolakoa den zehazki deskribatzen ez duten arren, emozionaltasunak eta pertsona bezala ondo garatzeak garrantzia izango duen esparrua izango da, eta hori lortze aldera, haurren hazieratik hasi behar garela adierazten dute. Iraganean gizarte aldaketan erabilitako metodologia eta moduek izandako eraginez jabeturik, beste baliabide eta eredu batzuk eraiki behar direla azpimarratzen dute.

Baina ereduak errepikatzen baditugu, behin eta berriro, paretan kontra joko gara ez? Pertsonala, ez nuelako nahi haurrak, ni pasatu naizen tokietatik pasatu behar izatea. Eta gero militantzia aldetik ere bai e? Edo herri aske bat lortzeko umeak aske izan behar dira. Bestela ez dago zer eginik. Ereduak errepikatzen ari gara. (...) Nik uste dut fundamentala dela, herri bezala aurrera egiteko pertsona bezala ondo garatzea, eta ez badago hori, ez badago hori ez dago ezer (S.E. Miren, Debagoiena).

Azken aipu honekin lotuta, elkarrizketetan, haurren haziera eta kalearen harremana asko aipatu ez den arren, aipatzekoa da Francesco Tonucciren ekarpenen eragina Gipuzkoako testuinguruan kokatzen diren web-gune eta sare sozialetan (online zein offline mundukoak). Hain juxtu, etorkizuneko hiriek, haurrak ere aintzat hartu beharko lituzketela defendatzen du. Orokorrean, haurren hazieraren gaineko konponbideak indibidualista eta pribatuak direla kritikatzeko du “haurrek gurasoekin egon behar dute” edo “gurasoekin jolastu behar dute haurrek” bezalako ideiak baztertuz. Haurren mendea dela azpimarratzen du Tonuccik, baina haurren eskubideen aldarrikapena egiten den arren familiaren eremuan gelditzen den haurren aldarrikapena egiten dela dio. Honen aurrean, hirigintzatik aldaketa mekanismoak martxan jarri behar direla azpimarratzen du, gure hirien eraldaketa soziala haurrak autonomia irabaztetik has dadin (Tonucci, 1997).

Bukatzeko esan genezake, etorkizuneko aurreikuspen, desira eta espektatibetan gurasoen baldintza sozialak islatzen direla. Izan ere, instituzio eta gizarte baldintzen kritika

egiterakoan argi ikusten da, aztertu ditugun ama eta familien *habitus*a zein den (kapital kultural eta sozial altua). Euren erabakiak, naturalizat hartzen badira ere, benetan jatorria soziala daukaten disposizio pertsonalak dira.

Eta ama eredugarria izateko gizarte-presio nabarmena daukagun testuinguru honetan, haziera eta amatasun eredu ezberdinekiko irudi ideal kokatuak eraikitzen direla. Hegemonikoa den gizarte eredu ez-humanoaren kritika egin arren, atxikimenduzko haziera ereduarekiko eta amatasunaren gainean eraikitako idealizazioa gertatzen baita.

3.4. DENBORA

Denboraren banaketaz hitz egitean, ezinbesteko zaigu aipatzea etxeko lanen eta zaintza lanen banaketan eraikitzen diren genero desberdintasunak. Oraindik ere, etxeko lan eta zaintza lanari eskainitako denboraren banaketa ez da berdina gizonezko eta emakumezkoetan. Horren adibideko dira, kontziliazio familiar eta laboralari buruzko azken ikerketak. Eta legeei dagokienean, aitatasun/amatasun batak ere desberdinak dira, aitatasun batak laburragoak direlarik (Ochaita eta Espinosa, 2006).

Testuinguru alternatibo baten deskribapena egitea erabaki dugun arren, aurrez ikusi dugun bezala haurtzaro garaian, amek aitek baino ardura eta dedikazio gehiago eskaintzen diote haurren zaintza eta etxeko lanei. Denboraren antolamenduan, haurraren hazierarekiko atentzioak esparru laboralak baino garrantzia gehiago harturik, amek euren bizitzaren kudeaketa hori nola daramaten ikusiko dugu.

Denboraren eta kontziliazioaren gaineko genero ikerketa ugari egiten dira, baina gure kasuan, atxikimenduzko hazierak emakumeen autonomiari dakartzan ondorioen analisisan zentratuko dugu gure begirada. Hazieraren bueltan kokatzen den denboraren antolamendua zeren arabera erabakitzen den eta zein aspekturi ematen dioten garrantzia ikusiko dugu.

3.4.1 Denboraren kudeaketa

3.4.1.1 Zaintza lanak eta etxeko lanak

Haurren zaintza lanak hirugarren pertsona baten esku uztea baino (aitona-amonak, haurtzaindegia...) gurasoen edo etxekoen esku uztea hobesten dute elkarriketan. Honek egunerokotasuna moldatzea eskatzen du, haurraren zaintza lanek eguneroko dinamika ezberdinak guztiz baldintzatzen dituelako.

Guk egin dugu sakrifizio bat, niretzat ez da sakrifizio bat, nik ez dut horrela bizi. Baina sozialki ikusten da... -joe, ta zu etxean zaude haurtzaindegira eraman zenezakeenean- baina eske nik ez dut nahi nire umeak jasotzea horregatik ematen diotena (S. E. Nerea, Tolosaldea).

Jo, nahi badugu todo trote ta eztakizer... pues... ba umeak kolokatu egin behar dira edo aitona-amonekin eduki esplotatuta. Ba karo, bertsio hori ere ez zait gehiegi gustatzen, gauza bat da rato bat edukitzea aitona-amonekin, baina egun osoa... lehertuta daude emakume asko, ordun niretzako sistema da gaizki funtzionatzen duna (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

Esanguratsua da elkarrizketatuetako batek aipatzen dituen zaintza-sareak, garai batean komunitatean edo auzoan egiten ziren zaintza lan horiek gaur egun ez baitute leku handirik. Sare horien bitartez, zaintza lanak, gurasoen esku utzi beharrean, beste familia batzuekin konpartitzen dira, eguneroko bizitza erraztuz.

Eta okertu dena argi eta garbi, da laguntza-sareak. Nik beti ezagutu dut alboan bizi-laguna, edo lo mismo te da un tortazo que un bocadillo. Ez bada iristen eztakizeinen etxera.. Edo auzoan, ba haziko ditugu, hazi ditugu.. Zentzu kolektibo hori umeen.. edo bizilagunak.. tinbrea jo ta -eske ama ez da iritxi ta... (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

Komunitatearen ideari helduz, zaintza tribu-en ideia amatasuna modu alternatiboan bizitzeko proposamen bezala, sarean aurkitutako eztabaida ugaritan ageri dela. Batez ere, gune urbanoetan, zaintza eta elkar-laguntza sareen beharra aipatzen da.

Proposamenak proposamen, lehen aipatu bezala, zaintza lanetan arduradun nagusia ama izan ohi da. Eta familiaren antolaketa ere horren arabera egiten da, enplegua normalean amak uzten duelarik edota lanordu murrizketak amak eskatzen dituelarik.

Familia nuklearraren figura orokorrean elkarrizketetan ez da azaltzen, baina komunitatea eta auzo-elkarbizitza aipatzean, guztia bikote tradizionalen egituratzeko gizartearen nagusitzen den beharra kritikatzeko du elkarrizketatuetako batek.

Etxeko lanak familian partekatzen dituzten arren, amak dira lan dedikazio gehien eskaintzen diotenak. Batez ere, detaile txikiei erreparatzen dietenak direlako.

Neretzako nahiago dut bizi, eta ez egon hor... hain lanpetuta etxeko lanekin. Baina iruditzen zait oraindik ikustezina guk egiten dugula. (...) Kasualitatea justu nik hartzea hori. ikustezinaren hori amak? Eta saiatzen naiz transmititzen, eta erabaki det orain, ba saiatu ez transmititzen, saiatu egiten nahi duzuna eta pozez eta ez... (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

3.4.1.2 Enplegua

Haurdunaldiaren ostean, enpleguari dagokionean, familian erabaki ezberdinak hartu behar izaten dira: lan-ordu murrizketak, enplegua uztea, aitatasun eta amatasun bajak, enplegua aldatzea etab. Amaren kasuan, lehentasunei dagokienean, haurraren zaintza lanek eta atxikimenduak lehentasunezko ardurak izaten dira.

Elkarrizketatuen kasuan, haurraren lehenengo urteetan enplegurik ez izatea edo ordaindutako lan murriztu bat izatea erabaki dute. Eta erabaki hori, batez ere, etxean

amak hartzen duela onartzen dute. Bestalde, beste guraso batzuen bizimodu edo bizitzarritmoarekin orokorrean kritiko azaltzen dira, lana utzi edo laguntzak eskatzeko aukeren aurrean ez baitituzte alternatibak bilatzen.

Nik uste ere bai, sartu garela kontsumo gizarte batean, non maila den el copon, denak eztaikit zer nolako...bale, lan prekarioak dira, baina jende askok aukera dauka murrizketak egiteko, beste modu batera antolatzeke, ta ez du egiten (S. E. Elisa, Buruntzaldea).

3.4.2 Haurraren etapa ezberdinak

Amatasuna zein haurraren haziera prozesu bat dela ulertzen da, etapa ezberdinetan jarrera ezberdin bat nabarmentzen delarik. Era berean, 0-4 urte bitarteko haurrak dituzten elkarriketatuek eta 4tik gorako elkarriketatuak ez dute berdin ulertzen prozesua bera, momentu ezberdinetan aurkitzen baitira.

3.4.2 .1 Hurbiltasunetik autonomo izaterantz

Laura Gutmanek erditzean kokatzen du abiapuntua, lehen suntsiketa emozional gisa ulertzen baitu. Honen ondoren, haurraren eta amaren arteko lotura emozionala sortuko litzateke (Gutman, 2013).

Eta orain arte antzeman dugun moduan, haurrek behin segurtasuna izanda, autonomia irabazten joango direla argudiatzen dute. Baina lehen kontaktu fisiko osoa eskaintzea eta beldurren aurrean babes emozionala izatearen beharra biziki azpimarratzen dute. Haurra soinean eramateko erabiltzen diren ehunezko izarak dira horren adibideko, eta esperientzia bezala hasierako hurbiltasun eta kontaktu fisiko hori honela deskribatzen da:

Orduan zuretzat oso autonomia eta praktikoa da, eta gozada bat da umea eukitzea hor... nik uste dut binkulo eta lotura aldetik ematen duela ere bai. Guri hasieran esaten ziguten el piel con piel. Erroparik gabe edukitzea umea, eta zu ere, eta azalarekin egotea, karo barruan egon da, ba pixkat kanpoan zentzu horretan jarraitzea ez? (S.E: Elisa, Buruntzaldea)

Lotura emozional horiek plazer esperientzia bezala ikusten dira orokorrean, eta sarean ere hasierako lotura emozional horren aldarrikapena egiten dela ikusi dugu. Gomendio ugari ematen dira, eta gurasoen kontsulta gune hauek geroz eta arrakasta gehiago izaten ari dira zentzu honetan. Artikulu eta eztabaida gunez gain haurrarekin ateratako argazki eta bideo artistikoek garrantzia hartu dute. Ikus-entzunezko hauetan ama eta haurra ageri dira, lotura emozional hori irudikatuz biluzik.

Haurrarekiko atxikimendua egokia denean, depresioa izateko arriskua asko gutxitzen da. Atxikimendua sor dadin, bai ama zein aitarekin, elkarrekin lasai denbora igaro behar dute, azala-azalarekin ahal bada edo soinean eramanda adibidez. Oso egokiak dira lehen asteetan fularrak. Horretaz gain, shantala masajea haurrari egiteak ere atxikimenduan asko laguntzen du. Masajea

edo soinean eramatea aitzak egiteak asko laguntzen du atxikimenduaren ezarpenean, batez ere amak haurra edoskitzen badu (berarekin denbora asko igaroko baitu).

Erditze ostean haurra ezagutzeko denbora hartu behar da. Sortu berri diren ama eta aita ere ezagutzeko denbora hartu behar da. Eta norbera egoera berrian kokatzeko denbora hartu behar da (*sabeletik mundura* ataria, 2014ko ekainak 20an ikusia).

3.4.3 Norbere denbora

Gure helburuetako bat, atxikimenduzko haziera ereduak amaren autonomian izan dezakeen eragina aztertzea izanik, atal hau nire ikerketako atal esanguratsua dela esango nuke. Izan ere, hasierako etapa horrek norbere denbora⁴ haurrari dedikatzea dakar. Orokorrean, ez da beharrezkotzat ikusten amak euren espazioa izatea hasiera batean, nahiz eta haurra hazten doan heinean hau aldatzen den. Hiru elkarrizketatuen esperientzia ezberdinak bildu ditut hemen:

Baina ez neukan beharrik ere ez ba orain dauzkaten afizioak egiteko e? ez neukan behar hori. Bueno, nekatuta nengoen, nengoen oso horrela... baina ez nuen beharra sentitzen beste gauza batzuk egiteko, eta inkluso jendeak esaten zidanean –ba hartu denbora zuretzako- zen como.... Nik nahi dut umeeekin egotea! (S.E. Miren, Debagoiena).

Ez osea, eboluzio bat izan da. Batzuk esaten dute –jo, eske ya no tengo vida- daukazu bizitza eta gainera bizitzaz betetako izaki txiki bat ondoan. Neretzat hori, eboluzioaren parte da, ta lehen esaten nizuna, gero berak 12-14 urte dituenean ez nau beharko, eta nik ahalko dut berriro parrandan atera, edo lehenago ere bai. (S.E. Nerea, Tolosaldea).

Nik esaten dudanean denbora propioa da neretzako bakarrik denbora, egoteko, paseo bat emateko... izan leike, beitu ba guazen... hutsa uztea. Bestela beti denbora betetzeko joera daukagu gizarte honeta. Ordun, tarte txikiak dira, baina bilatzen ditut, eta horiek ere badaude pixkat programatuta, (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

Erditze-osteko fase horretan, amek euren denbora propioa izatea, aurrez aipatu dugun haziera eredu pop-arekin lotzen da orokorrean.

Denboraren antolaketari dagokionean beraz, haurren beharrak eta erritmoa errespetatzeak eragin nabarmena daukala ondorioztatu genezake. Haurren etorkizuneko garapen egokia da lehentasunezkoa, eta amaren egunerokotasuna horren arabera banatzen da. Zaintza lanen banaketa etxearen esparrura mugatzen da nagusiki, nahiz eta alternatiba eta aukera ezberdinak aurkitzen saiatzen diren. Bestalde, haurdunaldi osteko fasea esperientzia aberasgarri eta boteretzaille moduan ulertzea, geroz eta indar handiagoa hartzen ari den planteamendua dela aipatu beharra dago.

⁴ Norbere denbora, kirola egin, lagunekin egon etab. bezala ulertuta.

3.5. EZAGUTZAK

Atxikimenduzko hazieraren iturriak helburuetan aipatu ditudanean, ezagutzaz ari gara behinik behin. Bereziki, emakumeen gorputza plazer, ezagutza eta botere eremu bezala ulertzen duten ikuspegiez jardungo dugu (Saletti, 2008).

Amak ez dira ama jaiotzen, ikasi egiten den zerbait dela argi daukagu. Ikaste prozesu hori nola egiten den eta ezagutza horiek nola transmititzen diren ulertzea garrantzitsua da.

Hasteko, aurreko belaunaldiek haurrak nola hazten zituzten erreferentziatzat hartzen den edo ez. Haurrak hazteko modu “naturalak” hartzen dira erreferentziatzat, baserri-munduko haurren ideia esanguratsua da. Baina era berean, aurreko belaunaldien haziera ereduak gaitzesten da.

Haurren hazieraren gainean, informazioa kontrastatu, formazio saioak jaso eta eztabaidatzeak ezinbesteko garrantzia dauka. Diskurtso mediko hegemonikotik haratago, informazioa etengabe kontrastatzen baita beste iturri batzuetatik. Amatasuna zalantza askoren iturburu izan ohi da, haurrak izateko asmoa dagoenetik hasita haurdunaldi, erditze zein hezteraino. Zalantza horien partekatzea eta eztabaida modu kolektiboan egitea ere ezagutza ezberdinen iturri bilakatu da.

3.5.1 Harreman-sareak eta ikastaroak

Ikerketa honetan, sarean ematen diren eztabaida eta irakurketei garrantzia eman diogun arren, bertan talde eta ikastaroen publizitatea eta hedapena ere egiten da. Izan ere, askotan kontsulta liburu edo informazio kontrastatze hori modu kolektiboan egiten da. Eta hor berebiziko garrantzia hartzen dute amatasunaren eta hazieraren gainean antolatzen diren ikastaro, topaketa eta hitzaldiek. Horietako asko, haurren hazieraren gaineko kezkak elkartrukatzeko elkarguneek antolatutakoak dira.

TTiklik elkargunetik antolatzen direnak adibidez, amei zuzendutakoak, hurrei zuzendutakoak edota familiei zuzendutakoak izan daitezke: sexologia tailerra, baby-shiatsu ikastaroa, antzerki eta adimen emozionala, makrobiotika ikastaroak, guraso eskola, masaje shantala ikastaroa etab.



TTiklik! elkargunea

Elkarrizketetan, kontsulta gune izateaz gain, haziera ereduaren gaineko hainbat hauturen bisibilizazio lana ere egiten dela aipatzen da.

Bueno niretako zen... bueno ez naiz bakarra, ez nago zoratuta, ba laguntza pixka bat zen, ta konpartitu ahal izatea jende horrekin eta ikustea... bueno, berdin zaudela, puteatuta, bueno esaten zenuen ez naiz bakarra! Baina segimos, burugogorak gara eta jarraitzen dugu e! pixkatxo bat laguntzen duela asko holako jendearekin topo egitea, eta ikustea ez? (S. E. Miren, Debagoiena).

Gurasotasunaz hitz egiten den arren, nagusiki harreman sare horietan parte hartzen dutenak amak dira. Hau neurtu ezin den arren, elkarrizketatuetako batek aiten presentzia eta jarrerez dihardu:

Entzule edo rezeptore bezala? Gehienak amak. Eta mutilak baldin badoaz, neskak konbentzitu duelako da. Mutila da komo... ba txorradas! Behin aita bati entzun niona e? egokitzapenaren inguruan... “guk ez genuen egin eta ez gara hain gaizki irten” Ia! (S.E. Miren, Debagoiena)

3.5.2 Erreferentziazko adituak

Bi muturretako adituak ageri dira elkarrizketetan, alde batetik, Estevel metodoa aipatzen da. Autore honen liburuek egindako kalteak aipatzen dituzte, haurrak helduen beharretara egokitzeko gomendioak bakarrik aipatzen baitira bertan.

Esaten dizuten hoiek ia atzerakada ematen dizute. Ez naiz robot bat, eta gida batek ez dit esango nolakoa naizen ni..(S.E. Nerea, Tolosaldea).

Garai batean arrakasta handia izan zuten guraso-gida hauetan lo edo jaten ikasteko metodoak gomendatzen dira, esate baterako:

¿Cómo? Enseñándole a conciliar el sueño solo, es decir, por sus propios medios, sin vuestra ayuda ni la de nadie. (Estivill, 2000:13).

Establecer una rutina y un ritual es la primera batalla ganada. (...) Adquirir esa disciplina será ya un gran avance en nuestra meta aspirada del habito de comer bien. (Estivill eta Domènech, 2004: 19).

Gida hauei esker, gurasoen bizitza-erritmora egokitzeko lagungarriak diren ohitura eta errutinak ikasten dira. Hain justu, lo-aldi edo jatorduetan errutinarik ez izatea hobesten dute elkarrizketatuek.

Eta atxikimenduzko haziera ereduan erreferentziazkoak diren liburuei erreparatzen badiegu ordea, helduek haurren bizitza erritmoa eta garapenera egokitu behar direla aipatzen da. Behin liburuak aipatuta, deigarria iruditu zait, elkarrizketatu guztiek liburu

eta autore berdinak aipatzen dituztela: besteak beste, Carlos Gonzalez eta Laura Gutman. Autore hauek, normalean haurrak izatean inork azaltzen ez dizkizun gauza horiez hitz egiten dutela azpimarratzen dute:

Irakurri nituen liburu batzuk, “besame mucho”... Honek Carlos Gonzalez-enak hain modan daudenak... ba bueno pixkatxo bat hortik gidatzen nintzen. Eta gidatzen nintzen bebai pixkatxo bat neri barrutik eskatzen zidanagatik ere. Eta neri gustauko litzaidakenagatik (S.E. Miren, Debagoiena)

Iturrien muinera joz, Carlos Gonzalez eta Laura Gutman-en planteamenduak Sharon Hays-ek deskribatzen duen intentsitate altuko haziera eta amatasun eredu biltzen dutela esan daiteke. Besteak beste, amatasun instintua, errudun sentimendua eta amaren rol sozialaz dihardutelako.

Hain juxtu, hainbat autore feministek eraikuntza sozial gisan identifikatu dutena, autore hauek naturaren jakintzaren baitan kokatzen dute. Ama-instintuaren kasuan adibidez, Elisabeth Badinterrek existitzen ez den zerbait ulertzen duen bitartean, ama-instintua existitzen dela honela azaltzen du Laura Gutmanek:

-Sí, por supuesto. Desde ya. Es propio de todas las especies de mamíferos. Pero ojo. “Desear un hijo” no es instinto materno. Eso es otra cosa. Eso es cultural. El instinto materno solo puede aparecer una vez que el niño ha nacido. Por eso es “instintivo”. (...) El instinto de proteger a la cría es de la madre que lo ha parido. El instinto no se construye (porque entonces no es instinto). Pero sí es verdad que el padre suele sentirse responsable por el bienestar de la cría, por supuesto. En términos modernos, la mayoría de los varones sienten que tienen que ganar más dinero (Gutman, 2014).

Adituen ekarpenak interesgarriak iruditzen zaizkien arren, ez dira gidaliburu moduan ulertzen. Lagungarri bezala ulertzen dira, norberari ateratzen zaiona eta amak momentuan behar duen literatura lagungarri bezala.

Ze justo garai horretan prestaketa egiten ari zirenak, ba ekartzen zuten hitzaldiak... eta neri horrek pues momentuan irakurtzeak indarra eman zian, baina justo orain ba esaten dut hala ia, no te pases. Ez? Pixkat ateratzen zait la revolución de las madres (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

3.5. 3 Subjektu feministak. Eztabaidak eta elkarguneak

Amatasuna eta feminismoak ulertzeko era ezberdinek espazio propioak garatzen dituzte sarean. Era berean, elkargune diren espazioetan eztabaidak ere sortzen dira, *Pikara magazine* online aldizkarian kasu. Erabiltzaileek post-ak igotzen dituzte eta ondoren honen azpian beste erabiltzaile batzuek iruzkinak egiteko aukera daukate. Eta hain justu, amatasun eredu *naturalaren* gainera kritika egiten duten artikuluek sortzen dute zalaparta gehien.

Este antifeminismo que viene es un mix entre ecologismo esencialista y feminismo de la diferencia mal entendido. Ellas plantean una revalorización de lo ontológicamente femenino sin salirse del patriarcado ni un metro. No necesitan organizarse políticamente en contra de la opresión porque, al parecer, lo único que las oprime son los avances del feminismo – (*Pikara Magazine* online aldizkaria)

Sarean ematen ari diren eztabaida hauek offline munduan ere zeresana daukatela argi dago, eta elkarrizketatuek eztabaida eta post hauen sarreraren berri ere badute. Eztabaidaren muinean feminista izatea zer den dago, eta definizio horiek nola eraikitzen diren ikustea interesgarri suertatu zait. Askotan feminista izatea zer den eta zer ez den eztabaidatzen da, aukera ezberdinez hitz egin beharrean, feminista dena zer den esaten duten horiek nondik hitz egiten duten. Eta sortzen ari diren eztabaidak interesgarriak diren arren, ez da zalantzan jartzen haurren beharrei eskaintzen zaien arreta eta zentralidadea.

Eztabaida horietan era nabarmenean azaltzen den gaia edoskitzearena da. Emakumeen aurrerapausoak zalantzan jartzen dituela aipatzen dute batzuek, beste batzuk edoskitzea aldarrikatzen duten bitartean. Elkarrizketatuek eztabaida horiek nola bizi dituzten ikustea interesgarria iruditu zait.

Errespetua, osea esan nahi dut: irakurtzen dituzu feminista oso erreferentziazko batzuk esaten bularra ematea dela esklabismoa... ta esaten duzu jolin ba zu hemen zaude zure iraganeko.... Familiarrak eta gizarteak bularra eman duelako. Hemen baldin bagaude da, gaitasuna daukagulako umeak eduki eta elikatzeko. Zergatik ukatu hori ez? (S.E. Nerea, Tolosaldea)

Egia da, ulertzen dut, eta nik gainera eskertzen ditut horrelako kritikak ere e? eztabaida hori egotea interesantea da, baina diskurtsoetik. Gero bizipenetatik bakoitzak egin dezala nahi duena, pixkat neri ateratzen zaidana ez? Nahi dunak al duena. (S.E. Elisa, Buruntzaldea).

Haur eta gurasoen arteko distantzia horrek dakartzan ondorioak azpimarratzen dituzte. Honen alternatiba moduan, emozionalitatearen lanketa eta haur-guraso harremana indartzea aipatzen dute.. Izan ere, eredu orokortua izateak nork bere bide propioa izatea zailtzen du, batez ere erabakiak hartzerako orduan.

Nik nahi nuen heziketa aurrera eramateko, jende guztia kontrari neukan. Danak. Titia? "Ah, baina berdin da! Emaiozu biberioia!" Ba ez dut nahi. (...) Baina jendearekin enfrentatu izan naiz, asko, bai. Nirekin lo egiten zutelako, titia ematen nielako, beti gainean eramaten nituelako, ba bandoleran edo motxilatxoan "eziezu aupaz eraman, ohitu egingo dira" pffff... Mesedez! (S. E. Miren, Debagoiena)

Bukatzeko, herentzia kultural eta jakintza berrien gaineko kontradikzio eta tentsio etengabeak bizi dituztela amek. Izan ere, amak ez dira ama jaiotzen, eta guraso izaten nola/nondik hasi eta ikastea erabaki konstantea dela esan genezake. Eta etengabe eztabaidaren erdian egotea, identitate kolektibo ezberdinen parte sentitzearen ondorio izan daiteke. Ama izatea, beste kezka eta interes batzuei erantzuten ari zaren momentuan gertatzen baita kasu askotan, ama feminista, ez-kapitalista, ekologista, euskalduna, izan nahiaz besteak beste.

4. ONDORIOAK

Lan honi amaiera emateko, behin analisiak atalez atal aztertu ostean, ikergaiaren hasieran ezarritako helburu eta hipotesiei berriz helduko diet. Eta honez gain, ikerketaren prozesu honen balorazio bat egingo dut.

Amatasun eta haziera eredu ezberdinak aztertu ditugu orain artean, baina bereziki nire testuinguru hurbilean atxikimenduzko haziera ereduak aztertzen aritu naiz. Azken hamarkadetan, haurren gaineko interes berezia ireki dela esan genezake. Eta haurren haziera bizitzeko eta erabakiak hartzeko moduak aldatu direla honekin batera.

Lan honen helburuei dagokionean, honako hauek betetzearen erronka jarri genuen: Helburu orokorra aipatuz, amatasun eredu *alternatibo* bat eraiki nahi den testuinguruan, atxikimenduzko haziera ereduak aztertzea Gipuzkoan, 2014. urtean. Ikerketa kualitatibo honetan, zenbakiez baino, bizipen eta irudikarien bueltan kokatu garen lez, ezin dezakegu zenbatu edo kuantifikatu zenbatek aukeratzen duten edoskitzea edo enplegua uztea haurraren garapenari begira, baina bai aztertu zergatik hartu duten erabaki hori. Bestalde, haurren heziketaren eta hazieraren gaineko gaiek interes sozial handia pizten dute Gipuzkoako testuinguruan, sarean geroz eta baliabide gehiago daude hori erakusten dutenak. Eta atxikimenduzko haziera ereduaren bueltan kokatzen diren amek, gizarte ereduarekiko eta instituzio ezberdinekiko kritika gogorrak dituzte hizpide. Baina, era berean, eredu hauekiko idealizazioa gertatzen da.

Helburu zehatzei helduz, atxikimenduzko haziera ereduaren iturriak identifikatzeari dagokienean, atxikimenduzko haziera eredu eta bere testuingurua aztertuz, esan genezake ez dela adituek goitik behera gidatutako eredu zurrin bat, baina aditu eta kontsulta-gune alternatiboen eragina nabarmena da. Atxikimenduzko haziera ereduaren teorialariak, amatasun instintiboaren eta ama-rol tradizionalaren aldarrikapen egiten duten arren, feminismoaren baitan sortzen ari diren eztabaidak mekanismo, tresna eta erabakiak modu ezberdinean hartzea ahalbidetzen die emakumeei. Iturri horien erreferentzia eta kontraste lan asko, interneten zein elkargune espazioetan (topaketak, hitzaldiak...) aurkitzen dute amek, eurak ere aktiboki parte-hartzen dutelarik.

Atxikimenduzko hazierak emakumeen autonomiari dakartzan ondorioak analizatzeari dagokionean, denboraren auzia bete-betean sartzen zaigu, baita etxean aitak eta amak izan dezaketen inplikazio maila ezberdina ere. Interneteko eztabaidetan suertatzen diren kritika gogorrenak, autonomia eta emakume bakoitzaren espazio propioaren gainekoak dira. Eta elkarrizketetan, atxikimenduak dakarren dedikazioaren ondorioz izan ezin duten espazio propioa haurraren etapa ezberdinetan irabazten joaten diren zerbait moduan ulertzen dute.

Azkenik, elkarrizketatuen erabaki eta hautuetan diskurtsoak eta praktikak zer nolako indarra daukaten ulertzeaz ari garenean, zera esan genezake: Elkarrizketetan hainbeste aipatzen ez den arren, diskurtsiboki haurrentzako zer den hoberena argi daukatela, baina praktikan familia bakoitzaren baldintza sozialak guztiz baldintzatzen dutela ondorioztatu dezakegu.

Egindako azterketa teoriko eta analisi enpirikoan oinarrituta, eta ñabardura batzuekin bada ere, hasieran planteatutako hipotesiak baieztatu ditudalakoan nago.

Hipotesiei dagokienean, lehenengoari helduz, zera aipatzen genuen: guraso izan eta haurrak nola hazi erabakitzeko geroz eta informazio-baliabide gehiago daudela. Era berean, gizarte-presio gehiago dagoela hainbat esparrutan jarrera eredugarriak izateko (elikadura, hezkuntza, emozioen kudeaketa...). Neurri batean hipotesi hau baieztatu egiten da, gurasoek (amek, batez ere) informazio-baliabide ezberdinak kontzienteki eta erabakitze-prozesu baten bitartez hartzen dituztela aipatzen duten arren, orokorrean gizartean ama eredugarri izateko presioa dagoela onartzen baitute.

Bigarren hipotesiari erantzunez, atxikimenduzko haziera ereduaren bitartez amatasunaren aldarrikapena egiten dela aurreikusi nuen. Eta esan daiteke hipotesi hau baieztatu egiten dela. Eredu honen bitartez, amatasunaren aldarrikapena egiten da, haurren eskubideen defentsa egiteaz gain, ama izan eta amatasuna bizitzeko era ezberdinak errespetatzea hobesten dute eta. Amatasuna, korrante ekofeministei jarraiki batez ere, plazer, ahalduntze eta ezagutza eremua izan daitekeen esperientzia bakar moduan ulertzen delarik. Atxikimenduzko hazieran azpimarratzen den naturaltasuna ere eraikitako zerbait dela aipatuko nuke. Auto-ezagutza eta autogestio mekanismoak ere ezagutu behar baitira, eta ikasi egiten dira besteak bezala.

Hirugarren hipotesia aipatuz, amatasun eredu hau norbere buruarekiko oso zorrotza zela aurreikusi genuen. Eta esan genezake hipotesi hau ere baieztatzen dela. Haurraren

garapena errespetatzeak emakumearen auto-exijentzia maila baldintzatzen duelarik. Exijentzia maila deskribatzen den arren, ez da emakumeek egiten duten lanaren errekonozimenduaz hitz egiten, behar bat bezala ulertzen delako kasu askotan.

Azken hipotesiari helduz, sarean sortzen diren eztabaidek diskurtso eta praktika ezberdinetan eragina zutela intuitu genuen. Kasu honetan ere, hipotesia baieztatzen da, interpretatzen zaila den arren, sarean ematen diren eztabaidek atxikimendua oinarri duten teoriak kontrastatu eta eztabaidan jartzen dituztelako. Eta honez gain, nor bere buruarekiko zein haurraren hazierarekiko hartu beharreko erabakiak baldintzatzen dituzte.

Gradu amaierako lanaren mugek baldintzaturik, ezin izan dut hainbat gaitan sakondu, eta etorkizuneko balizko ikerketa ildo batzuk proposatzera garamatza honek. Alde batetik, Gipuzkoako testuingurua barik, Euskal Herriko testuingurua orokorrean aztertzea interesgarria litzateke.

Bestetik, beste teknika kualitatibo batzuei helduz, talde-eztabaidak esate baterako. Elkarrizketa eta *narratiba* esanguratsuak aztertzeke aukera izango genuke.

Pertzepzio, intuizio eta erreferentzia ezberdinen hariei helduz, bide honen amaierara iritsi gara, baina jarraituko dugun esperoan eta esperantzan nago. Ikerketa eta esperimentazio epe honetan egindakoa sakondu eta ikasten jarraitzeko gogotsu bainago. Eta nik neuk, gai honen inguruko gogoeta ezberdinei heldu diedan bezala, nireari heldu, ekarpenak egin, eta bidean elkarrekin jarraitzeko aukera irekita dago.

5. BIBLIOGRAFIA

Alonso, L. E. (1998). *La mirada cualitativa en la sociología*. Madrid: Fundamentos.

Arbaiza, M. (2000) "La cuestión social como cuestión de género. Feminidad y trabajo en España (1860-1930)", *Revista de Historia Contemporánea*, 21. Zenbakia

Aresti Esteban, Nerea (2001). *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua

Aresti Esteban, Nerea (2001). *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio del siglo XX*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

Ariès, Philipe (1987) *El niño y la vida familiar en el Antiguo Régimen*. Madrid: Taurus

Badinter, Elisabeth (1984). *¿Existe el instinto maternal? historia del amor maternal, siglo XVII al XX*. Barcelona: Paidós

Baumann, Zygmunt (2003). *Modernidad líquida*. México DF: Editorial Fondo de Cultura Económica

Bericat, Eduardo (1998). *La integración de los métodos cuantitativo y cualitativo en la investigación social*. Barcelona: Ariel

Bowlby, John (1998). *El apego y la perdida*. Barcelona: Ediciones Paidós Ibérica

Burgaleta Pérez, Elena (2012). *Género, identidad y consumo : las "nuevas maternidades" en España*. Universidad Complutense de Madrid

Díaz Martínez, Capitolina eta Dema Morena, Sandra (2013). *Sociología y género*. Madrid: Tecnos

Domínguez, Daniel eta Alonso, Laura (2004). *Metodología para el análisis didáctico de foros virtuales*, <http://edutec2004.lmi.ub.es/pdf/46.pdf>. 2014ko otsailaren 29an kontsultatua.

- Esteban Galarza Mari Luz (2006). "Amatasuna: eztabaida antropologikoak eta feministak". *Amatasuna eta aitatasuna proposamen berriak*. Lekua: UEU
- Esteban Galarza, MariLuz (1999). *Amatasunaren ideologia eta emakumeen kontrako erreakzioa*, ANKULEGI 3. Zenbakia, 73-80 orrialdea.
- Estivill, Eduard (2000). *Duermete niño Como solucionar el problema del insomnio infantil*. Barcelona: Plaza Janes editores.
- Estivill, Eduard eta Domènech, Montse (2004). *Si, a comer se aprende*. Barcelona: Plaza Janes editores.
- Gutman, Laura (2012). *La familia nace con el Primer hijo*. Buenos Aires: Del Nuevo Extremo
- Gutman, Laura (2014). *Si soy una madre consciente, no hay nada más libre que criar un hijo* <http://www.lauragutman.com.ar/si-soy-una-madre-consciente-no-hay-nada-mas-libre-que-criar-un-hijo/>. 2014ko ekainaren 10ean kontsultatua
- Harding, S. (1987), "Is There a Feminist Method?", *Feminism and Methodology*, Bloomington/Indianapolis. Indiana University Press (Gloria Elena Bernal-ek gaztelaniara itzulia)
- Harding, S. (1996). *Ciencia y feminismo*. Madrid: Ediciones Morata
- Hays, Sharon (1998). *Las contradicciones culturales de la maternidad*. Barcelona: Paidós
- Imaz Martinez, Elixabete (2007). *Mujeres gestantes, madres en gestación. Representaciones, modelos y experiencias en el transito a la maternidad de las mujeres vascas contemporaneas*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea
- Imaz Martinez, Elixabete en Alonso Arbiol, Itziar (koord.) (2006). *Amatasuna eta aitatasun. Proposamen berriak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea
- Juaristi Larrinaga, Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea

Lagares González , Juan Manuel (2012). *Ciencia, tecnología y mujer : la identidad femenina construida por las tecnologías de la anticoncepción y de la reproducción artificial*. Huelva: Universidad de Huelva.

Martínez, Cándida eta Nash, Mary (2013). Arenal: revista de historia de mujeres.

Ochaíta, Esperanza eta Espinosa, María Ángeles (2006). *Conciliación de la vida familiar y laboral de las madres trabajadoras: una perspectiva desde el desarrollo infantil y adolescente*, Ábaco, 169-183 orrialdeak.

Parsons, Talcott (1999). *El sistema social*. Madrid: Alianza Editorial

Rodrigañez Bustos, Casilda (2006). *Única* aldizkarian egindako elkarrizketa. 2006ko uda. www.casildarodriganez.org

Russett, Cynthia Eagle (1995). *Sexual Science. The Victorian Construction of Womanhood*. Harvard University Press. Cambridge (AEB)

Saletti Cuesta, Lorena (2008). *El concepto de "maternidad": últimas tendencias dentro del feminismo*. Clepsydra: revista de estudios de género y teoría feminista

Shiva, Vandana (2004). *Abrazar la vida. Mujer, ecología y desarrollo*. Madril: Horas y Horas.

Tonucci, Francesco (1997). *La ciudad de los niños*. Madril: Fundación German Sanchez Ruiperez .

Woolf, Virginia (1920). Russett, Cynthia Eagle (1995). *Sexual Science. The Victorian Construction of Womanhood*. Harvard University Press. Cambridge (AEB) –en aipatua

Zafra, Remedios (2010). *Un cuarto propio conectado. (Ciber)espacio y (auto)gestión del yo*. Madrid: Fórcola Ediciones

Kontsultatutako webguneak:

- <http://sabeletikmundura.com/>
- <http://www.intramed.net/>
- <http://ginecologianatural.wordpress.com/>
- <http://www.pikaramagazine.com/>
- <http://guraso.com/>
- <http://www.ttiklik.com>